




astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

18.zk 2024 • 7€





AURKIBIDEA | **astola**

Durangaldeko urtekaria. 2024

Astola iritzi orori zabalik dagoen aldizkaria da, horrek ez du esan nahi artikuluen sinatzaileekin bat datorrenik.

Erredakzioa, publizitatea eta administratza:

Gerediaga Elkarte
Larrasoloeta, 3 48200 Durango

Tel. 94 681 80 66

E-mail: gerediaga@gerediaga.eus
www.gerediaga.eus

Koordinatzailea: Txelu Angoitia

Erredakzio kontseilua:

Jon Irazabal, Izaskun Ellakuriaga,
Beñat Gaztelurrutia, Markel Onaindia,
Imanol Tabera, Juan Rekalde, Gotzon
Gómez, Xixili Bengoetxea, Aingeru
Mimentza

Argazkia: Txelu Angoitia

Publizitatea eta administratza:

Beñat Gaztelurrutia

Diseinua eta maketazioa:

Biko komunikazioa (Durango)

Inprimategia: Gertu koop.

Lege gordailua: SS-1525-07

ISSN: 1888-234X

© Argitalpen honena, Gerediaga
Elkarte 2024

© Testuak eta argazkiak, egileenak

www.gerediaga.eus



6 | LABURREAN

Durangaldeko urteko kultur kronika laburra: Abadiñoako haurrentzako aterpetxe franquista, 100 urte Balendin Lasuen jaio zela, Durangoko behatoki astronomikoa, Gorulariak edo Elorrioko troxea.



18 | DURANGALDEKO ERRAKETISTAK. AHAZTUTAKO PILOTARI AITZINDARIAK

XX. mendean ehundaka emakumek, erraketa bat eskuan, Estatuko eta Ameriketako frontoien hormak astindu zituzten, eta asko Durangaldekoak izan ziren. Eurei buruz gutxi jakin da urteetan.

Estibalitz González



36 | PÓRTICO DE SANTA MARÍA. EL CORAZÓN DE DURANGO

Patrimonio histórico extraordinario, el pórtico de Santa María es desde hace 300 años el auténtico corazón de Durango.

José Angel Orobio-Urrutia — Oier Bizkarra

56 | NÉSTOR BASTERRETXEA. EUSKALDUN GLOBALA

Eskultorea jaio zela 100 urte bete direnean, bere bizitza eta obra aztertu ditugu, Durangaldearekiko harremana nabarmenduz.

Garazi Arrizabalaga



72 | LOS AMPUERO. UNA FAMILIA EMPRENDEDORA DE DURANGO

Desde su casa “Etxezuria” en Pinondo, los Ampuero ocupan desde hace algo más de dos siglos y medio un lugar destacado en la historia económica y política del país.


Igor Basterretxea



88 | KARRIKA. 25 URTEZ DURANGOKO AMETSEN FAKTORIA IZATEN

San Agustin Kultur Gunean portua izanda, KARRIKA antzerki taldearen itsasontzia duela 25 urte abiatu zen eszenatokitik ametsak egi bihurtzeko asmoarekin.

Arantza Arrazola



108 | BARRUKO IBILBIDEAK

Kulturarekin loturiko bost gonbidatuk bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.



134 | J.L. LIZUNDIA. ELKARRIZKETA

Jose Luis Lizundiak mende erdi baino gehiago daramatza euskal kulturaren eta euskararen mugarriekin lotuta, bai Durangaldean baita Euskal Herrian ere.

Markel Onaindia — Jon Irazabal



144 | KINTAKOLUMNISTEN SAREA ZALDIBARREN ETA INGURUETAN

Zaldibarko Okildo kobazulo ezkutua, gerra zibilaren lehen garaietan, alderdi nazionalera igaro nahi zuten frankisten babeslekua izan zen.

Gaizka Zabarte



122 | LECCIONES DEL PASADO. LA DESTRUCCIÓN DE LA FERRERÍA DE LEBARIO

La ferrería de Lebario es un ejemplo claro de las dificultades que sigue teniendo el patrimonio industrial en su definición y protección.

Eva Díez Paton



154 | PASIOZ BETERIKO MENDE BAT. C.D ELORRIO, HERRI XUME BATEN HARROTASUNA

Mende bateko historiarekin, C.D.Elorriok kirol eremua gainditu du herri oso baten ikur eta harrotasun bihurtuz.

Imanol Tabera



Aldizkari honetako
zuzenketak egiteko
garaian joan zitzaigun
Jon Irazabal Agirre,
"Kata" gertukoentzat.
Efemerideak asko
gustatzen zitzaizkion,
eta justu, bere
urtegunaren
bezperan izan zen,
abuztuaren 23an.

AGUR Jon

Joan aurreko astean, Astola aldizkariko lanen bat pendiente zeukala abisua jaso genuen etxeko enbidez. Bidaliko zigula agindutakoa... eta halaxe zen, pendiente zuen lantxo bat Astolarako. Baina, zorretan, gu gaude Jonekin.

Berea izan zen aldizkaria martxan jartzeko ideia. Orain dela lau urte joan zitzaigun Jose Mari Uriarte izan zuen konplize nagusi. Biak izan dira aldizkari honen arima. Tandem ona osatzen zuten.

Jonek aparteko ezagutza, jakintza eta trebezia zituen eferemeride bat, data bat, gertakari bat, izen bat, pertsonaia bat gogoratzeko. Ordu asko egindakoa zen liburu artean, artxiboetan edota lagun historialariek in tertulian. Bera izaten zen gure entziklopedia eta informazio iturri. Orain arteko aldizkarietan irakurgai izan diren ikerketa lan asko berak lantaldetara ekarritako "pistei" esker argitaratu ditugu.

Faltan botako dugu Astola aldizkarian, faltan botako dugu Gerediagan, eta faltan botako dugu Durangaldean. Historialaria zen. 24 orduko afizio-ofizioa zen berea, militante hutsa. Durangaldero iragana jakiteko erreferentzia nagusia izan da. Bere jakituriaren zati handi bat Gerediaga Elkartearen eskutik argitaratutako hamarka argitalpenetan jasota dago eta Astola aldizkariaren 18 zenbakitan ere bai.

Zenbaki honetan ere, utzi du alea. Jose Luis Lizundia elkarte kidearekin berak izandako berriketaldi luzea transkribatuta irakurgai dago.

Pertsona batzuek betetzeko zaila den hutsunea uzten dute. Jon da horietako bat. Bere modukorik ez dago.

Estábamoz con las últimas correcciones de este número de Astola cuando se nos ha ido Jon Irazabal, "Kata" para los allegados. Amigo como era de las efemérides, eligió para dejarnos la víspera de su cumpleaños, el 23 de agosto.

Pocos días antes, nos comentó a través de sus familiares que pronto nos mandaría lo que tenía pendiente para la revista. Sí, nos debía un artículo, pero somos nosotros los que sentimos que nos quedamos en deuda. Junto a su cómplice y amigo Jose Mari Uriarte, también fallecido en 2020, fue Jon el que vio hace ya 18 años la necesidad de crear esta revista. Fueron siempre un buen tándem, el alma de este proyecto.

Jon tenía una memoria inmensa. Sus largas horas de lectura, de investigación en archivos o de charlas con amigos historiadores hicieron de él un almacén inagotable de información y conocimiento al que todos acudíamos. Muchos de los artículos publicados en Astola en estos 18 años se deben a ideas que Jon traía al grupo de trabajo.

Ha sido historiador, activista cultural, militante de la memoria histórica en su sentido más amplio, y referente en el conocimiento de nuestro pasado. Sus decenas de publicaciones, de la mano de Gerediaga, son buena muestra de ello.

También en Astola deja una profunda huella hasta el final, hasta este número en el que Jon conversa con otro histórico de Gerediaga, José Luis Lizundia.

Le echaremos de menos en Astola, en Gerediaga, y también en todo Durangerría, su pasión. Jon es de las personas que dejan detrás un hueco muy difícil de llenar.

**Astola hau Joni eskaini nahi diogu,
Astolakide guztiok.**

**Por eso, queremos dedicarte
este número, Jon. Betirarte!**

LABURREAN

IZASKUN ELLAKURIAGA
BUSTINZA

ABADIÑOKO NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA BARNETEGIA FRANKISMOAREN ONGINTZA SISTEMAREN HASTAPENETAN

2024ko Durangaldeko Ikerlari Gazteen Sariketako lan irabazlea

Hirugarrenez antolatu da aurten Durangaldeko Ikerlari Gazteen Sariketa. Gerediaga Elkartek sustatuta, Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoaren babesarekin antolatzen da ekimena eskualdeko ondarea, historia, kultura eta gizartea zaindu, ikertu eta zabaltzeko zaletasuna Durangaldeko gazteen artean bultzatzeko helburuarekin.

Edizio berrira 19-35 urte arteko kategorian bakarrik aurkeztu dira lanak, guztira bost. Kopuru txikia izan arren, kalidade handiko ikerlanak izan dira.

Epaimahaia eskualdeko hiru gaztek osatu dute: Iru-ri Altzerreka Martinez zuzenbide ikaslea, Helene

Sanchez Zelaia bioteknologian graduatua eta Ainhoa Zabarte Narbaiza kazetaritzan lizentziaduna. Epaimahairen iritzian, saritutako lana "lan osoa da eta ondo egituratua dago. Marko teorikoaren lurreratze egokia egiten du, testuinguru zabal batetik hasita Abadiño-ko errealtatera ekarrita. Horrez gain, frankismoaren beste aurpegi bat erakusten du, orain arte, horren ezaguna izan ez dena".

Marta Calvo Larralde durangarra izan da ikerlari saritua. Erregimen frankistak gerraosteko lehenengo hamarkadetan Abadiño-ko "Zelaietako hotela" bezala ezaguna den Ibaigoiti jauregian ezarri zuen umeentzako barne-
tegia ikertu du: Nuestra Señora de Begoña.



Ikerlari Gazteen Beka 2024

Gazte Ikerlarien Sariketako sari nagusia ekonomikoa bada ere (1000€), Astola aldizkarian laburpen bat argitaratzeko aukera ere ematen zaie irabazleei. Edizio honetan, baina, ikerlariarekin argitalpena atzeratzea adostu dugu. Izan ere, lan irabazlearen berri eman eta gero, hainbat ikerketa lerro zabaldu dira eta barnetegiari buruzko informazio eta datu gehiago bilduko direnez, Astolaren hurrengo edizioan, ikerlanaren laburpen osotuagoa argitaratzea erabaki dugu.

📍 **Goian:** Abadiñoko umeentzako barnetegia. Germán Zorraquin. Gerediaga Elkartearen artxiboa.

📍 **Behean:** Marta Calvo (erdian) saria jasotzen. Alboetan Idoia Otaduy Amankomunazgoko presidentea eta Beñat Gaztelurrutia Gerediagako kudeatzailea.



LABURREAN

MARKEL ONAINDIA
TXABARRI

40 URTEZ IZARREI BEGIRA

1980ko hamarkada hasieran Intxaurrondo eskolako ikasleekin batera Bartzelonara eginiko bidaian, Joaquín Rueda irakasleak teleskopio bat ikusi zuen museo batean.


Astronomia zalea zen gaztetatik, eta une hartan ideia baten lehen printza sentitu zuen bere imajinazioan: ikastetxean astronomia behatoki bat muntatzea. Justu sasoi hartan Eusko Jaurlaritzak ikastetxeetako laborategiak hornitzeko plan bat bultzatu zuen, eta zortzi irakasle zeregin horretarako liberatu zituen. Rueda zen euren bat.

Durangarrak astronomia eta biologia arloen ardur hartu zuen, eta horren baitan bere ideari forma ematen hasi zen. Udalak Intxaurrondoko ikastetxea handitzeko asmoa zeukanez, obra behatoki bat eraikitzeke aprobetxatzea proposatu zuen Ruedak. Eta, egitasmoa onartu zuten. Lleidako (Katalunia) enpresa batek eraikitako behatokia 1985ean inauguratu zen. “Jupiter, Saturno eta ilargia ikustea orduan ikaragarria zen”, aitortu du irakasle ohiak. Autonomia erkidegoan ikastetxe batean ipinitako lehen behatokia izan zen.

Handik aurrera, milaka ikasle igaro ziren behatokitik, teleskopioaren bidez izarrek eta planetak ikusteko. Gainera, behean, astronomiari eskainitako gela zabaldu zuten gero, eta espazioko elementuei buruz ikasteko balio zuen. Ruedaren ostean Esteban Esteban irakasleak hartu zion lekukoa, eta hantxe jardun zuen 2018an Jaurlaritzak gela itxi arte.

Izarra elkarteak

1990 inguruan, Intxaurrondoko behatokia zabaltzearen eraginez, Durangoko astronomia zaleek Izarra elkarteak sortu zuten. Ikastaroak eta taldeko behaketak antolatzeari ekin zioten. Gaur egun, oraindik ere, martxan darrai elkarteak, Intxaurrondoko oktogonoan duten gelan. Hori bai, behatokia berritzea eskatu izan dute, eta ikasleentzako astronomia gela osterazabaltzeko sinadurak bildu ere bai. Behatokia zabaldu zenetik 40 urte beteko dira datorren urtean, eta Durangoko astronomia zaleek izarrei begiratzeko segitu gura dute aurrerantzean ere.



 Joaquín Rueda 1990ean (goian) eta 2024an (behean). Txelu Angoitia.

LABURREAN

IZASKUN ELLAKURIAGA
BUSTINZA

“BALENDIN, EZ VALENTIN”

Balendin Lasuen Solozabalek 100 urte beteko zituen aurten ekainaren 1ean bizirik balego. Zaldibarren jaio zen 1924. urtean eta Zaldibarren hil zen 2019ko abenduaren 26an. 95 urtetan ekintzailetza sena erakutsi zuen.

Zaldibar, euskara eta kultura izan ziren bere jardueren zutabe nagusiak. Eta berak beti azpimarratzen zuenez, beti, Balendin, ez Valentin. Aitaren izena hartu bazuen ere, aukera izan zuenean aldatu egin zuen.

Idazlea. Hainbat lan eta artikulu argitaratu zituen euskarazko aldizkarietan, esaterako, Anaitasuna eta Zeruko Argia-n. Gainera, historia eta etnografia gaiak landu zituen euskaraz eta gaztelaniaz. Nabarmentzekoak dira Caja de Ahorros Vizcaínak “Temas Vizcaínos” bilduman argitaratutako liburuak edota Zaldibarko koadernoak izenarekin berak argitaratutako 30 bat liburuxka.


Musikazalea. Zaldibarko Koral Elkarteak eratu zuen 1945ean eta bertako zuzendari izan zen berrogei urtez, 1985 arte. Koral Elkarteak, baina, abesbatza baino gehiago izan zen. Kultura adierazpen ezberdinak jorrazten zituzten. Antzerki taldea, dantzariak eta etnografia taldea ere baziren. Talde guztietan hartu zuen parte Balendinek. Aurretik, gainera, kirol elkarteak 1942an sortzen lagundu zuen eta urtebete beranduagao mendizale taldea.

Ekintzailea. 1967an, eskoletako guraso eta adiskideen elkarteak sortzen lagundu zuen. Hango lehenengo lehendakaria izan zen. Gerediagako elkartearen lehendakari ere izan zen, erakundea sortu berrian, 1966tik 1972ra bitartean.

Politikaria. Herriko alkate izan zen 1976tik 1983ra, eta Bizkaiko batzar nagusietako kidea bi legealditan (1979-1982 eta 1983-1986 aldietan). «Bergarako alkateak» taldekoa ere izan zen 1976tik 1979ra eta urte horietan Durangaldeko Mankomunitateko lehendakaria ere bai. Beranduago, Eusko Jaurlaritzaren Kultur ordezkaria izan zen Bizkaian 1983tik 1994ra.

Enpresaria. Berrizko Manufacturas Lasuen lantegiko jabea izan zen.

Egindako lan guztiaren ordain sariak ere hainbat jaso zituen. 2007an, Bilboko Liburu Azokak Urrezko Luma Saria, kulturaren eta euskararen alde egindako lanagatik. 2013an, beste bi: Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen Lauaxeta Saria eta Zaldibarko herriak egin zion esker-on omenaldia.



📷 Balendin Lasuen 70eko hamarkadan Liburu Azokan (goian) eta bere etxean 2009an (behan). Foto Sol/Txelu Angoitia.

LABURREAN

IZASKUN ELLAKURIAGA
BUSTINZA

GORULARI-DANTZETAN SAKONTZEKO ARGITALPENA KALERATU DUTE IURRETAN

2023an, 50 urte bete ziren lurretako dantza taldeak Gorularien-dantzak berreskuratu zitutela: 1973ko maiatzaren 25ean Donostiako udaleko osoko bilkuran dantzatu zituzten Goizaldi taldearen XXV. urteurrena ospatzeko.

Egun haretan, Iñaki Irigoienek Durangaldeko dantzei buruzko hitzaldia eman zuen, eta amaieran, iurretarrekin berreskuraturako dantzak lehenengoz dantzatu zituzten. Gero, urte haretako San Migel jaietan ere dantzatu zituzten eta harrezkero urtero plazaratu dituzte, iaz 50 urte betez. Gorulari-dantzen jatorria eta bilakaera azaltzeko, aurtén, Iñaki Irigoien Etxebarría folklore ikerlariak idatzitako liburuxka argitaratu dute lurretan.

1886ko Durangoko Euskal Jaietan, Gorpuzti-egunean sustraitutako dantzetan dute oinarria gaur egun egiten diran gorulari-dantzak. Jatorriz, 8 gizonezko gazteek dantzatzeko zituzten, baina 1886ko jaietarako berresmatu eta 8 emakume gazteek ere dantzatu zituzten.



📷 Arku dantza.

Gorularien-dantzak hiru dira eta lurretan ordena honetan dantzatzeko dute: Arku-dantza edo Uztai-dantza, Zinta-dantza eta Gorularien estanpa.

Arku-dantza edo **Uztai-dantza**. Durangon arkuak eskuan egiten den dantza bati buruzko lehen datua 1828. urtekoa da. Eta berezitasun nagusia da neskek dantzatu zutela Fernando VII.a eta Maria Josefa Amalia bere emaztearen aurrean.

Zinta-dantza. Zintak makila batetik zintzilik eta dantzariak zintei eutsita egiten den dantza honek "Domingillo" izena ere hartzen du. Makila puntan jartzen den txotxongiloaren izena da. Dantza hau da hiruretan zaharrena. Durangon, Gorpuzti jaietako prozesioaren ostean dantzatzen zuten, eta aintzinako dokumentuetan jasotzen denez inauterietan ere dantzatu izan da.

Gorularien estampa. Beren beregi 1886ko Euskal Jaietarako sortu zen. Juan Antonio Moglek 1881ean idatzitako *Peru Abarca* liburuko pasarte batean dauka jatorria. Bertan, lihoaren lanak azaltzen dira. Langintzari buruzko bertso horietako batzuk hartuta, estanparen kantua egin zuten eta Valentin Maria Zubiaurre garai-tarrak doinua jarri zion.

Gorularien-dantzak, beraz, aspaldikoak dira. Baina 1936ko gerra zibilak eta gerraosteko egoera sozialak galzorian utzi zituen. 1967an, Gerediaga Elkartek sustatuta, Durango Merinaldeko lehenengo "Ezpata-dantzari Eguna" egin zen, eta inguruko dantzen forma zaharrak berreskuratzeko gogoia pizteko balio izan zuen. lurretako dantzariak, esaterako, Gorularien-dantzak berreskuratzeko lanari ekin zioten.



📷 Gorularien estampa.



📷 Zinta dantza.

LABURREAN

FRAN IRUARRIZAGA
LANDABURU

ORTUGUREN BASERRIKO TROXA

ELORRIO, 1797



 Troxaren detaileak.



Ortugurengo troxa Landaburu-Uribarrena familiako altxorra da. 1797ko urtarrilaren 9an sinatutako ezkontza hitzarmenean aipatzen da. Berrizko Francisco de Lasuen eta Elorrioko Ortuguren baserriko Maria Josefa de Yturberen arteko ezkontzaren inbentarioan agertzen da troxa. (Hemen trojea esaten da).

Aleak gordetzeko balio zuen troxa honek, eta azterketa dendrokronologikoa zehazteko badago ere, XVII. eta XVIII. mendeen artean koka dezakegu. Garai haietan bi kutxa mota zeuden: etxeko elikagaienezakoak

“... y a más declara dicho donante que se hayan existentes al presente en esta dicha casería de Ortuguren, cuatro camas decentes, con todo lo necesario de hacer, colchones y adherentes: catorce arcas de varias cabidas y un troje grande de cien fanegas...”



📷 Troxa.

(artoa, garia, ...) eta komunitarioak, esaterako, elizarako hamarrenak eta primiziak biltzeko.

Ortugurengo troxa haritzeko piezekin osatuta dago eta luzera taila polit, luze eta bakun bat dauka. Guztia matxinbratua da eta zurezko zirizko lotuneak ditu. Garaiko euskal zurgintzan benetako artelana dela esan dezakegu. Barrua bi zatitan banatuta dago, eta horietako bakoitzak izteko estalki bana dauka, sarrailek eta guzti. Giltzarako Kutxa Santiagoko maskorrarekin apainduta dago. Goiko aldea laua da, nahiz eta askok teilatutxo itxura izan.


Troxaren neurriak honek dira: luzeran 260 zm, zabalera 165 zm, altueran 165 zm eta zuraren lodiera 6,5 zm. Kutxak 100 anega biltzeko balio zuen, eta kontuan hartzen badugu batek 92 libra dituela, eta libra batek 0,45 Kg, guztira 4140 Kg-ko gaitasuna zuen.

Ortugurengo troxa laster zabalduko den Bilboko Euskal Museo berrituan izango da erakusgai. Museoko arduradunek Landaburu-Uribarrena familiarekin hitzarmena sinatu dute, dohaintzan usteko museoaren erakusketa iraunkorrerako.



Durangaldeko
Mankomunitatea

Mancomunidad
de Durangaldea

The background of the entire page is a photograph of a landscape. In the upper left, there are mountains under a cloudy sky. Below the mountains, a town or city is visible, nestled in a valley. The foreground is dominated by a large, leafy tree branch that extends from the right side towards the center, partially obscuring the view of the town and mountains. The leaves are dark green and dense.

Etorkizuna

Ondarea
Natura
Euskera

www.dma.eus



DURANGALDEKO

ERRA KETIS TAK

AHAZTUTAKO PILOTARI AITZINDARIAK

 Estibalitz González Solozabal |  Artxiboak

Hamarkada luzez, ehunka emakumek erraketa bat eskuan estatuko eta Ameriketako pilotaleku ugariaren hormak astindu zituzten. Durangaldekoak ziren beraietako asko eta, zer kontatu ugari izango zuten arren, historiak bigarren lerro batean ezkutatu ditu. Kantxaratu ditzagun berriro eta frontoietan duten lekua aitortu diezaiegun kirol diziplina guztietako lehen profesional haiei.



📷 Sabadell frontoiko erraketistak 1943an. Erdian, kantxeria eta beheko ilaran La Titas, pelotitak hartzeaz arduratzen zen neskatotxoa.

Erraketistak pilotalekuetan tenisekoaren antzeko erraketa batekin jokatu zuten emakumeak izan ziren, kirolari profesional bezala aritutako Estatuko lehen kolektiboa. Gehiengo zabala euskal jatorrizko neskatoak izan ziren, batez ere Debabarrenekoak eta Durangaldekoak lehen sasoietakoei erreparatuz gero.

Erraketisten ibilbide profesionalaren kontakizunari 1917. urtean ematen zaio hasiera, urtarilaren lehen egunetan Madrilgo Cedaceros kalean izen bereko pilotalekua inauguratu zenean. Diziplina berriak sortutako ikusmirak eta arrakastak bultzatuta, 1919an Moderno frontoia zabaldu zen hiriburuan bertan, Ildefonso Anabitarte Ansa (1878-1937) puntista ohiaren ekimenez.

Donostiar hau ezinbesteko bihurtu zen kirol honen zabalkundean eta sustapenean: aldatu zituen ordua arteko tenis-pilotak eta larruzkoak sartu, joko bizitu eta partidei ikusgarritasuna ematea hel-

buru. Horrek frontoiak luzatu beharra ekarri zuen eta, piloten indarrari eusteko, erraketak gogortzea, batez ere sokak. Erraketei dagokienez, Ingalaterratik zetozen hasiera baten eta eskaerek zuten atzerapen eta hornitze faltari aurre egiteko, Valentín Zumalabe ebanista mutrikuarra hasi zen erraketa-gintzan. Kirolaren garairik emankorrenean, artisau honek urtean 3.000 erraketatik gora egin zituen.



Bartzelonako "Frontón Colón".

PILOTALEKUAK

Anabitarte eta beste enpresari batzuen ekimenari esker, erraketisten pilotaleku berriak zabaldu ziren han-hemenka. Kirol modalitate honek bizirik eman zituen sei hamarkadetan zehar, andrazkoak aritutako 49 pilotalekuren berri dugu: hamabi egon ziren Madrilen, hamaika Katalunian, bana Bilbon, Donostian eta Eibarren, pare bat Kanarietan eta, bakarra izan arren ere, ez zuten garrantzi txikiagoa izan Burgos, Castellón, Córdoba, Xixon, Logroño, Mallorca, Salamanca, Sevilla, Valentzia, Vigo eta Zaragozakoek. Atlantikoaren beste aldean, oster, Mexikoko hiri desberdinetan bost, hiru Habanan eta bana Sao Paulon eta Miamin. Frontoi gehiena erraketa jokarako propio eraikia izan bazen ere, batzuen kasuan beste modalitateetako jokalariekin osatu ziren pilotari koadroak, palista eta puntistekin batez ere.



 Maite Gorrotxategi (tente laugarrena), Sabadell frontoian erreketista lagunekin 1941ean.

Chiqui izena izan zuten askok, palan edo zestaz jokatzeko pilotalekuak baino motzagoak zirelako. Bombonera ere deitzen zieten, kantzaren neurriari zein bertan jokatzen zuten nesken edertasunari erreparatuta. Eder eta ez hain eder, denetik zegoen, jakina, baina kirola egitearen ondorioz emakume gihartsuak bihurtu ziren, atletikoak, indar handikoak besoetan zein hanketan, ikusleriaren-tzat erakargarri.




📷 Nieves Bereziartua prentsan .



📷 Rosita Arregi Valentziako Chiqui pilotalekuko orlan.



📷 Rosita Arregi (erdian), Eibarko erraketista eskolan 1933 urtean.



 Erraketistak Donostiako Groseko pilotalekuan 1938an. Pascual Marín / Fondo Marín.



ESKOLAK

Erraketista asko umetan hasi zen eskua egiten pilota-jokoan, eta jaioterriko frontoian edo elizpeko hormatarretan aritzen ziren, mutilen kontra gehientxoenetan. Gure bailarakoek Eibarko erraketisten eskoletara joateko aukera izan zuten, bertan trebatuz eta entrenatuz. Hiru izan ziren Eibarren gerra aurreko urteetan martxan egondako eskolak: Aste-lena, kopurutsuena, Txaltxa-zelaiko udal pilotalekua eta Isasi gaineko Kaminerokua; hirurehun metrotan hiru pilota eskola.

1936an, gerra hasi aurreko kronika batek jasotzen duenaren arabera, Eibarren 40-50 neska ari ziren erraketatzen, debutatzeko puntu-puntu batzuk. Baserriko alabek azokaren eta behien esnea partitzearen jira-buelta aprobetxatzen zuten entrenatzeko tartetxo bat topatzeko, etxekoan isilean sarri baino sarriago. Gurasoak jakitun zirela joaten zenik ere bazen: familia batzuetan etorkizunerako



Bilboko *Euzkel Jai*aren kartela.

Joan zirenek, sendia eta lagunak atzean utzita, frontoi bereko beste erraketista batzuekin hartzen zuten ostatu. Koadro berean jokatzen zuten sarritan, bikotean edo elkarren kontra: kantxan aurkari, baina handik kanpo lagun, euren artean elkar zaintzeko sare familiar sendoa osatuta.

Etorri zen ere 1936ko gerra eta honek iraun zituen hiru urteetan, sinestezina bada ere, frontoiak zabalik mantendu ziren, apustuak eta kinielak bere horretan eta erraketistak jo eta su lanean. Beraien ahotik esanda, partida jokatzen zeundela bonben eztanda entzuten zen, eta etxera bidean haiek eragindako kalteak ikusten zituzten eta arropak zuhaitzetatik zintzilik.

ORIGINAL

Reg. Núm. 4773
Con. Annot.

Forma G. H. 34
12-1-62

RECIBO OFICIAL A No 2144612

Laredo, Texas, 15 de noviembre de 1962

LIQUIDACION a cargo de la señorita LUCIA ARRUBE URUETA "LUCINA"

Importe: \$ 518.75 (QUINIENTOS DIECIOCHO PESOS 75/100)

Concepto:

IMPUESTO MIGRACION:

Liquidación el Impuesto de Migración de conformidad con el Artículo 20. Inciso "G" de la Ley del Impuesto de Migración vigente.

Se le documenta como NO INMIGRANTE POR SEIS MESES de acuerdo con el Artículo 50, Fracción III (TERCERA) de la Ley General de Población vigente, reformada por el Decreto del 29 de diciembre de 1959.-

F.N. B/328/089161

El Cónsul
Eugenio V. Pasqueira

El Cancellation Officer
Carmen Romano

SECOB el importe de la Liquidación que antecede.

M. Cancellation
María Teresa Calderón de Cusí

NO ES VALIDO SIN EL SELLO OFICIAL Y FIRMA DE QUIEN DEBE AUTORIZARLO.



📷 Lucia Arrube inmigrazio dokumentoa (goian) eta Emakumea eta euskal pilota erakusketaren detaileak (behean).

GAINBEHERA

1940an Euskal Pilotaren Espainiako Federazioa sortu zen, Kirolaren Ordezkaritza Nazionalaren menpe zegoena. Beronen buru Jose Moscardó jenerala zela, 1944ko uztaileko agindu batek iragarri zuen urte biren buruan erraketan aritzen ziren frontoi guztiak itxi beharko zirela eta modalitate horretan jokatzeko lizentzia profesional gehiago ez zela luzatuko, aktibo zeuden erraketistek 1946ko uztaileko data arte berriztatuko zitzairen arren. Kirola bere arorik distiratsuenean zegoen, frontoiak puri-purian eta bolada onean, harmailak andrazkoz zein gizonezkoz beteta eta gainontzeko pilota modalitateetan baino zale gehiagorekin...

eta horregatik guztiagatik-edo erraketa jokoak traba egiten zuen eta desagerrarazi beharra zegoen.

Polemika gogorra ekarri zuen aginduak eta lortu zen ez gauzatzea, baina hurrengo urteetan samurtu bazuten ere, erraketan aritzen ziren kirolari haien ospea iluntzeko kanpaina itsusia hasi zen, pilota munduaren gertuko pertsonetatik ere etorri zena: diru-apustu eta kiniela-jokoa tarteko, garbi ez jokatzeko leporatzen zitzairen erraketista batzuei eta zalantzan jartzen zen guztien profesionaltasuna kantxan, gizonezkoen pilota modalitateetan gertatu ez zen bezala, dirua berdin-berdin jokatzeko arren. Kaltea eginda zegoen. 1957an indargabetu egin zen aurreko agindua, baina gainbeherak ez zuen atzera bueltarik.

Topatutako trabei eta zailtasunei aurre egin ezinik, pilotari askok Ameriketara egin zuten alde, hango frontoietan eskaintzen zizkieten lan-baldintzei eta soldatei muzin egin barik. Gaurko begietatik suposatuta ahal duen liluratik haratago, askorentzat ez zen erabaki erreza izan, bertan laga behar izan zituztelako bikoteak, familia, kasu batzuetan seme-alabak...

Estatuan lizentziarik ez berritzean, ez zen jokalaria gehiago hasi eta zeuden pilotariak apurka-apurka erretiratzen joan ziren. Gainera nesken artean jada ez zen erraketa lan aukera bezala ikusten. Sasoi baten frontoiak erruz zabaldu ziren bezala, erruki barik itxi zituzten, eta zeudenak distira eta zaleak galtzen joan ziren. Madrid Pilotalekua izan zen erraketa jokoan zabalik mantendu zen azkena eta pilotariak enpresako arduradunekin izandako arazoak, lan-baldintzak hobetzeko greba eta auziak tarteko, modalitateak bizi zuen dekadentzia areagotu zuen, frontoiaren itxiera bultzatuz. Bertan jokatu zen erraketisten arteko azken partida, 1980ko uztailaren 17an.



Lucia Areitioaurtenaren pilotari lizentzia. Bartzelona, 1945.

AITORTZA

Pilotaren beste modalitate guztietako profesionalak batuta baino kopuru handiagoak jardun zuen erraketan. Euren jatorrizko familien sostengu garrantzitsua bihurtuta, emakume haientzat erraketa herritik ateratzeko eta mundua ezagutzeko aukera bat izan zen, sarri askotan gizartearen aginduz zegokien roletatik ihes egiteko, aske bizi eta euren independentzia ekonomikoaren jabe izateko. Bizi zuten sasoiko andren molde estuak apurtzeko ausardia, kementa eta kasu batzuetan premia izan zuten.

Euren jokoaren neurria egindako pilotalekuak altxatu ziren eta bete zituzten zalez eta emozioz. Kirol-prentsako protagonista bihurtuta, txalotuak eta miretsiak izan ziren, izarrak bezala tratatuak... baina jatorrizko herrietan kritikatuak, inbidia eta esamesa iraingarrien sorburu izateraino.


Durangaldean jaioterria edo bizilekua izan duten erraketistak bistaratzeko eta ahanzturatik erreskatatzeko ahalegina dira orri hauek. Gurean baziren ere Pilar, Esther, Elena... izen hutsez iritsi zaizkigunak eta izango dira ere bertara ekarri ez dugunik; baleude, aditzera ematea estimatuko genuke. Historiak gutxietsitako eta ezabatutako kolektibo honen parte ere badira euren kirol-ibilbidea hasi eta arrazoi desberdinak tarteko uztea erabaki zutenak, hauek ere eman ziotelako indarra erraketa-jokoari. Multzo baten zein bestean egon, ekarri ditzagun guzti-guzti haiek lehen lerrora!

Estibalitz González Solozabal

Irakaslea eta ikerlaria



 Maite Gorrotxategiri Durangoko Jai-Alai pilotalekuan egindako omenaldia. 2023. Txelu Angoitia



**JESUSA GARITAONANDIA
MALLABIABARRENA**

"Areitio"

Mallabia. 1921-8-16

Bartzelonan jokatuakoa.
Bilbon hil zen 2000 urtean.

DURANGALDEKO



ERRAKETISTAK



**MARIA ARRIAGA
OLALDE**

"Marichu"

Berriz. 1922-03-20

Salamankan, Bartzelonan, Madrilan, Valentzian eta Mexikon jokaturakoa. 2014an hil zen Ondarroan.



**PURIFICACIÓN
ARRIAGA OLALDE**

"Purita"

Berriz. 1924-02-2

Bartzelonan, Madrilan, Valentzian eta Mexikon jokaturakoa. Mexikon hil zen.

**ANA ROSA EGIA
RODRÍGUEZ**

Markina-Xemein.

1945-07-7

Bartzelonan eta Mexikon jokaturako aurrelaria.

**MIREN JOSU ASTARLOA
CAREAGA**

"Miren"

Ermua. 1921-11-25

Bartzelonan jokaturakoa. Bilbon hil zen 1989an.



**IRENE
IBAIBARRIAGA
ORMAETXEA**

"Irene"

Ermua.

1918-02-9

Madrilen, Valentzian, Bartzelonan eta Donostian jokaturako aurrelaria. 2014an hil zen Ermuan.

**MIREN BEGOÑA
EREÑAGA
ONAINDIA**

"Begoña"

Durango.

1927-03-11

Sabadellen jokaturako atzelaria. 2015ean hil zen Durangon.





LUCIA ARRUBE UNZUETA

"Luchy"
eta *"Lucina"*

Turreta.

1923-9-30

—
Madrilen,
Bartzelonan,
Valentzian
eta Mexikon
jokatutakoa.
2012an hil zen
Euban.



CONSUELO IRASUEGUI PRIETO

"Chelo"

Eibar. 1926-3-31

—
Sabadellen eta Bartzelonan
jokatutako aurrelaria. 2024an hil
zen Durangon.



CONCEPCION BUSTINDUI GARATE

"Conchita"

Berriatua. 1927-12-2

—
Bartzelonan eta Mexikon
jokatutakoa.



MAITE GORROTXATEGI POTENTE

"Ermua"

Sestao. 1926-10-22

—
Sabadellen, Tortosan,
Bartzelonan eta Logroñon
jokatutako aurrelaria.



HIPOLITA IBAIBARRIAGA ORMAETXEA

"Poli"

Ermua. 1914-8-22

—
Madrilen, Valentzian eta
Bartzelonan jokatutako atzelaria.
Bartzelonan hil zen 1942an.

FRANCISCA ASTARLOA URIARTE

"Paquita"


Mallabia. 1926-7-4

Bartzelonan eta Tenerifen
jokatutakoa. Tenerifen hil zen
2013an.

CONSUELO ASTARLOA URIARTE

Mallabia. 1929-6-6

Bartzelonan jokaturakoa.
Bartzelonan hil zen 1945ean.



ROSARIO ZUBIZARRETA TXURRUKA

"Ermua I"

Ermua. 1918-12-17

Salamankan eta Madrilén jokatutako atzelaria. 2002an hil zen Segovian.



ELADIA ZUBIZARRETA TXURRUKA

"Ermua II"

Ermua.
1923-4-6

Salamankan,
Bartzelonan eta
Madrilen jokatutako
aurrelaria. 2020an hil
zen Sevillan.

ROSA ARREGI ARRIAGA

"Rosita" eta
"La Atómica"

Mallabia.
1922-10-19

Madrilen, Bartzelonan,
Valentzian eta Mexikon
jokatutako atzelaria.
2014an hil zen Valentzian.



MARIA PILAR NARBAIZA ARANBURU

"Pilar"

Mallabia. 1922-10-28

Sevillan eta Madrilén jokatutako atzelaria. Abadiñon hil zen 2010ean.



**MARIA GARATE
BERGARETXE**

"Garate"

Durango. 1925-5-19

Sabadellen jokututako aurrelaria.



**MARIA ASUNCION
EGIGUREN GALLASTEGI**

"Marichu"

Zaldibar. 1921-8-14

Logroño, Sabadell eta Bartzelonan jokututako aurrelaria. 1981ean hil zen Bartzelonan.



**MARIA TERESA RODRÍGUEZ
MUGARRA**

"Tere"

Durango. 1915-9-21

Madrilen eta Bartzelonan jokututakoa. Durangon hil zen 2019an.

**NIEVES
BERASALUZE
ZABALA**

*"Chiquita de
Mallavia"*

Mallabia. 1924-8-5

Donostian, Bartzelonan, Madrilen eta Sevillan jokututakoa. 2021ean hil zen Sevillan.



**MARIA ROSARIO
DE CRUZ MOLINA**

"Chari"

Ermua. 1948-11-10

Madrilen jokututako aurrelaria.



**MARIA ROSARIO
IBAIBARRIAGA
ORMAETXEA**

"Rosario"

Ermua. 1909-10-2

Salamankan jokututakoa. 1999an hil zen Ermuan.



**VICTORIA
IBAIBARRIAGA
ORMAETXEA**
"Bitxori"
Ermua. 1920-3-23

Madrilen jokaturakoa.
1992an hil zen
Donostian.



**JESUSA ASTARLOA
URIARTE**
"Maria Jesus"
Mallabia.
1923-7-3

Bartzelonan, Madrilen
eta Mexikon jokaturakoa.
Mexikon hil zen.



MARIA ASTARLOA URIARTE
"Miren"
Mallabia. 1923-7-3

Bartzelonan, Madrilen eta
Tenerifen jokaturakoa. Tenerifen
hil zen 2008an.

**DIGNA GARITAONANDIA
MALLABIABARRENA**
"Chiquita de Mallavia"
Mallabia. 1923-9-22

Bartzelonan jokaturako
aurrelaria. 2023an hil zen
Bartzelonan.



**LUCIA AREITIOAURTENA
ISASI-ISASMENDI**
"Lucia"
Ermua. 1925-12-10

Bartzelonan jokaturako
atzelaria. Donostian hil zen
2019an.



**MARIA ROSARIO
AGIRRE AKISO**
Elorrio.
1924-4-26

Bartzelonan
jokaturako aurrelaria.
2001ean hil zen
Durangon.



**PILAR GARITAONANDIA
URIZAR**
"Azkoitia"
Mallabia.
1921-7-14

Madrilen, Valentzia eta
Bartzelonan jokaturakoa.
1988an hil zen Bartzelonan.

FERTIBIL BIZKAIA 2024

GETXO

Punta Begoña Galeriak-Galerías Punta Begoña
Uztailak 16- irailak 2
16 julio- 2 septiembre

BASAURI

Arizko Dorretxea
Irailak 4- urriak 3
4 septiembre-3 octubre

IGORRE

Lasarte Aretoa
Urriak 5-urriak 31
5 octubre-31 octubre

DERIO

Kultur Birika
Azaroak 4 - abenduak 2
4 noviembre-2 diciembre

AMOREBIETA-ETXANO

Zelaieta Zentroa
Abenduak 3- abenduak 30
3 al 30 diciembre

ARGITALPENAK PUBLICACIONES

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

DENDA • PUNTO DE VENTA

Diputazio kalea 7, 48009 BILBAO

Tel: 944066968/944066969

Ordutegia • Horario: 08:30-14:00

(Astelehenetik ostiraletara • Lunes a viernes)

KATALOGOA • CATÁLOGO

www.bizkaia.eus/argitalpenak

**Katalogoan 500 izenburu inguru
kontsultatu daitezke, hainbat gairi buruzkoak**

En el catálogo se pueden consultar alrededor
de 500 títulos de temática variada.

Pórtico de Santa María

El corazón de Durango



 José Angel Orobio-Urrutia – Oier Bizkarra

 Txelu Angoitia – Archivos

El pórtico de Santa María se ubica en el espacio que hasta la Alta Edad Media había sido el cementerio de la villa y, posteriormente, hasta el siglo XVII, lugar de paso, recreo y reunión de los duranguenses.



Antecedentes

En la antigüedad, los enterramientos se realizaban en el entorno de la iglesia y desde aproximadamente el siglo XII comienzan a realizarse en el interior de ellas. Primero, son las familias nobles y las casas ilustres las que gozan de ese privilegio; posteriormente los obispos, abades y clero en general y, por fin, se generaliza la costumbre de realizar los enterramientos dentro de esas iglesias. A pesar de ello, se sigue denominando como cementerio el espacio que había quedado libre de sepulturas.

La primera referencia al cementerio en el Archivo Municipal de Durango es de 1430, en la que se dice que *“seyendo ajuntados a conçejo segund que lo han de vso e de costumbre a bos del pregonero [...] en el çiminterio de la yglessia de Santa Maria”* (AMD-DUA. LEG. 7(1), N° 15). Otro ejemplo lo tenemos en 1483: en el testimonio sobre la ceremonia con ocasión de la visita y jura de los privilegios de Durango por parte de la reina Isabel la Católica, se dice que *“salieron los sacerdotes de la iglesia de sennora Santa Maria al çiminterio [...] e su alteza se descabalgo [...] e pusieron a los pies de las gradas fasta el altar mayor, pannos de linno muy preçiados...”* (AMD-DUA. LEG. 4(1), N° 1). Se deduce que era costumbre ancestral el uso público y no religioso del espacio para, entre otros usos, debatir con los vecinos las cuestiones importantes de la villa o para las grandes solemnidades.

No sabemos la forma que tenía ese cementerio, aunque por los datos encontrados en el archivo podemos pensar que era cerrado, cubierto en parte por un cobertizo y con el suelo empedrado. Así, en 1569, Pedro de Solano pide que se le pague 12 ducados porque ha *“edificado de piedra mucha parte”* de ese cementerio y en piedra labrada debajo del cobertizo. Bajo ese cobertizo, aparte de las reuniones de vecinos se utiliza ese espacio para las representacio-

nes anuales de autos y comedias los días del Corpus Christi (la fiesta más importante en aquella época) y también se hacían corridas de toros, aunque se prohibieron los bailes, so pena de excomunión.




📷 Dario de Regoyos. Museo Reina Sofía.

Su construcción

Debido al mal estado en que se encontraba *“el çiminterio de dicha yglessia que sirve de plaza y adorno y lucimiento de toda la republica estaba para caerse y se conservaba con puntales por ser parte adonde concurren todos”*, en el pleno del ayuntamiento del 4 de septiembre de 1676 se informa de que se había puesto a remate la ejecución de *“dos estribos con su arco en Medio del cementerio de la Yglessia Matriz [...] asi lo tocante A la carpintería como a la cantería con las condiciones y traças que tienen asentadas y dadas”* (AMD-DUA, LIBRO DE ACTAS, 9, FOL. 244). Dos años después, el ayuntamiento ordena *“que se*

desbaraten los dos pillastres”, ya que maestros expertos habían considerado que se habían hecho con poco arte. Se encarga una nueva obra y se encomienda la realización de la traza al cantero Domingo de Baraincua y al carpintero Martín de Gabiria. La ejecución de la obra de cantería corresponde a Martín de Olaguibel y la obra de carpintería a Vicente de Arrien (AMD-DUA, LIBRO DE ACTAS, 9, FOL. 267).



📷 Principios del Siglo XX. al fondo las marchanteras.



📷 Grabado de la segunda guerra Carlista.



📷 El pórtico a finales del siglo XIX.

En el pleno de junio de 1679 se dice que la fábrica de Santa María carece de medios para la edificación de la nueva obra y se estima el coste total en 18.000 ducados, por lo que se decide suplicar a su Majestad que se sirva conceder la imposición de tres blancas en cada azumbre de vino tinto y clarete que se vendiese en la villa durante el tiempo de las obras necesarias en el cementerio, torre, sacristía y retablos que también se estaban realizando. Meses después, se expide una provisión librada por Carlos II donde se concede dicha licencia durante diez años.

Aunque la obra de cantería estaba concluida para 1681, casi diez años después la obra de carpintería no se daba por terminada. En 1690 se acuerda emprender una acción judicial contra el carpintero Vicente de Arrien, vecino de Amorebieta, porque, a pesar del tiempo transcurrido *“el dicho zimenterio y por no estar perfeccionado no executado lo obrado segun antecondiciones y traza”*, instándole a que termine la obra según lo acordado (AMD-DUA, LIBRO DE ACTAS 10, FOL. 23). Desconocemos cuándo se da por finalizada la obra de carpintería, porque no se vuelve a tratar el tema en el Ayuntamiento.



 El Pórtico hacia 1935. Germán Zorraquín. Gerediaga Elkartearen artxiboa.

Espacio religioso y laico

mm Se va perdiendo progresivamente el carácter religioso del pórtico.

Según opina Fausto Antonio de Beitia, en sus “Noticias históricas de la villa de Durango”, se había construido para el uso de la iglesia, para la celebración de procesiones, responsos y ánimas y obras piadosas, aunque desde principios del siglo XVIII ya se está utilizando el pórtico como centro de reunión y ocio de los vecinos. A lo largo del siglo XVIII se solicitan permisos para poner tablados para representaciones de comedias, se hacen corridas de toros en fechas señaladas (se hacían habitualmente en el portal de Kurutziaiga, frente a la llamada “Casa de Cristo”), se hacen las procesiones del Corpus, de la Virgen en agosto, de jueves y viernes santo, etc. Sigue Beitia afirmando que “desde la ominosa época de la gue-

rra llamada de la Independencia, se hallan los citados cementerios de dicha iglesia reducidos, a lo menos en días lluviosos, a ser una plaza de mercado y profanados con las irreverencias que son consiguientes al tráfico de compra y venta [...], y por último la concurrencia de los días festivos de toda clase de personas de ambos sexos, como si fuera un paseo público”.

Con el fin de intentar combatir con esa “relajación” de las costumbres, se dictan diversas normas para el uso del pórtico. Como anécdota curiosa, es reseñable una actuación en 1832, cuando el vecino de la villa Pedro de Ercilurruti denuncia a Hipólito de Elorriaga, alcalde de Durango, porque había decretado “la prohibición del paseo de mujeres por el atrio de la parroquia de Santa María de Uribarri”. El pleno del Ayuntamiento afirma que ha sido una decisión personal del alcalde, que pretendía “mantener el respeto y veneración a los templos y lugares sagrados” sin consultar con nadie, por lo que se decreta que



1896. Colección Rodríguez Iraurgi.



Semana Santa. Txelu Angoitia

anule esa orden y que “pueda pasearse en el punto en cuestión toda clase de personas sin distinción de sexo vigilando la autoridad local de la villa el que se verifique con la decencia y compostura que deben regir en todas las concurrencias públicas”. El alcalde

no está de acuerdo con esta decisión y recurre al Vicario general del obispado, que se abstiene de mezclarse en el asunto. Se obstina el alcalde en que el pórtico sea considerado como lugar sagrado y se prohíba el paseo de mujeres, y recurre al Real y Supremo Consejo. Un año después, este Consejo y también el Corregidor dictan que si se considerara “parage sagrado” no podrían pasear por él ni las

mujeres ni los hombres, lo cual sería “contrario a la costumbre inveterada de aquellos naturales a pasearse en aquel local”. La decisión final del Ayuntamiento es acatar esta orden y anular el bando del alcalde Elorriaga.







 Mercado hacia 1906. Germán Zorraquín. Gerediaga Elkartearen artxiboa.

Intento de derribo

mm Son continuas las obras que a lo largo del siglo XIX se deben hacer en el pórtico.

Entre otras, se reparan varios machones, se hacen nuevas rejas en las entradas, se hace una nueva iluminación en 1871, se construye un urinario junto a la torre quitando el que estaba en el pórtico viejo y se “empotran” en las paredes de la iglesia los apoyos de los asientos que se han construido. Como curiosidad, en la segunda guerra carlista de Euskadi, concretamente en mayo de 1873, el general José Lagunero ordena fortificar el pórtico para defenderse de los ataques de las tropas carlistas. Ante el mal estado en que queda el suelo tras esa fortificación, un año después, se encarga al cantero Juan de Urtiaga el arreglo de las losas.

La llegada del ferrocarril a la villa implica una profunda transformación urbana. Se plantea en 1883 un nuevo diseño urbanístico y se encarga al arquitecto Casto de Zavala el levantamiento de un nuevo plano de Durango. Propone, sobre todo, la alineación de diversas calles (entre ellas Andra Maria) y el “*derribo del Pórtico de Santa María y el arco de acceso a la misma que da frente a la calle del Olmedal para trazar la carretera de travesía adosada a la iglesia con curvas menos pronunciadas y más corta longitud, sustituyendo lo derribado con un mercado abierto cubierto de hierro de 12 metros de anchura y una marquesina también de hierro [...] porque se encuentran en estado ruinoso y cree indispensable su inmediato derribo*”. Como indica la profesora de la UPV-EHU María Jesús Pacho, lo más llamativo de la propuesta de Zavala “*es la preeminencia de la racionalidad de trazado sobre [...] el patrimonio monumental puesto que dos elementos funda-*

les, la Puerta de Santa Ana y el mismo pórtico de Santa María, sucumbían a la piqueta". Alegaba Zavala que "el calificativo de monumento en el orden artístico es impropio, pues tanto el estilo como la construcción no representan ni a la belleza ni a la solidez necesaria a esta clase de recintos". Este plan suscita una fuerte protesta, tanto de los componentes de la corporación municipal como a nivel popular. Se solicita un informe al ingeniero Pablo Alzola, "quien corrige a la baja las expectativas de Zavala", conservándose el pórtico y el arco de Santa Ana si bien se derriban el resto de los portales de la villa.



 Txelu Angoitia.



 1957. Obras en el pórtico. Foto Sol



 Esquina del pórtico en 1935.



 Años 50. Ricardo Doliwa. Gerediaga Elkartearen artxiboa.

El Siglo XX. singular laberinto

 Desde comienzos del siglo XX se constata el mal estado en que se encuentra el pórtico.

Innumerables obras de retejo para evitar las goteras, reposiciones de vigas, obras de “atirantamientos” y consolidación, etc., demuestran ese mal estado. Es de reseñar también que, a pesar de que se había inaugurado la plaza del mercado en 1929, los vendedores siguen prefiriendo situar sus puestos alrededor de los pórticos y en el interior de ellos cuando llueve, porque era un lugar más céntrico y había más paso de viandantes. El ayuntamiento tiene que obligar a esos vendedores a que pongan sus puestos en el mercado, aun así, queda algún reducto de ellos, como sería el caso de las marchaneras.



 Vista del pórtico en 2008. Txelu Angotia

La guerra civil y, especialmente, el bombardeo de la villa el 31 de marzo de 1937, impacta considerablemente sobre el pórtico; ahora bien, *“es destacable que ninguno de los arcos es afectado habiendo incidido las bombas únicamente en la cubierta y el atablado de la cubierta además de alguna que otra correa”*. La Dirección General de Regiones Devastadas destina un millón de pesetas a la reconstrucción de la villa, siendo una de las primeras tareas el arreglo de la iglesia de Santa María para abrirla al culto y, ya el año 1938, la reparación del pórtico. También se acuerda la desaparición del tejadillo entre los dos pórticos, por considerarlo antiartístico y en pugna con el buen gusto. Para esta




 El pórtico tras el bombardeo de 1937.

obra se utiliza como mano de obra forzada a 60 presos del ejército republicano, que forman el Batallón de Trabajadores Prisioneros número 14.



 Bautizo en 1960. Foto Sol



 Diseño de suelo realizado por Francisco Eguía Torrealday en 1938.

Durante estas obras se procede a la nueva pavimentación del suelo del pórtico. El perito del Ayuntamiento Francisco Eguía Torrealday diseña la construcción de un laberinto en el suelo, que, según

algunas teorías, sería una réplica de las utilizadas en la antigüedad en diversas catedrales para la gente que, queriendo redimir sus pecados y no pudiendo hacer la peregrinación a Tierra Santa o a Santiago de



 Acto franquista en el pórtico en los años 60. Foto Sol

Compostela, lograsen esa redención haciendo el recorrido completo sobre este laberinto. Siguiendo la descripción que hacen Joseba Juaristi y Arantza Goegascoechea, el diseño está formado por dos recorridos, cada uno de ellos con una figura en forma de estrella de ocho puntas y un laberinto que confluyen en el cuadrado central. Ambos recorridos, *“tienen como punto de partida la figura estrellada próxima, y como punto final el centro del laberinto”*. El laberinto situado al este es un diseño original de Eguia, el situado al oeste imita al que se encuentra en la catedral de Chartres. Según estos autores, para conectar los laberintos circulares se permite la licencia, modificando la tradición de los laberintos góticos, de *“añadir una vuelta más a cada uno de ellos. Son, por tanto, laberintos de doce vueltas y, por tanto, de trece niveles”* mientras que los de las iglesias francesas son de once vueltas y doce niveles.

Hacia el año 1956, el deterioro del pórtico es evidente. Se ha tenido que apuntalarlo y se prohíbe el paso por él, excepto para acudir a las funciones religiosas. Este deterioro está motivado, fundamentalmente, por las vibraciones que produce el paso de camiones de gran tonelaje por la carretera general que circundando ese espacio desde Zumalakarregi a Kurutziaga, se dirige a Elorrio y Beasain. Se hace una restauración a fondo, que incluye un refuerzo de la cimentación, desmonte y reconstrucción de las tijeras y, aprovechando el desmonte de la cubierta, rebaja de la pendiente de ésta. Estas obras podrían parecer definitivas pero, en 1983 se tiene que hacer una nueva reparación de la cubierta y del lucernario. Y, por último, ante la proliferación de goteras, el año 2021 se vuelve a hacer una reparación integral del pórtico.



 Feria agrícola en los años 60. Foto Sol

Su uso por el pueblo

mm Como centro neurálgico de la villa, se utilizó con fines militares (en la francesada y en las guerras carlistas) y como mercado alrededor de los dos pórticos y en su interior los días de lluvia.



 Feria del libro. Años 80. Foto Sol

Fue y es lugar de reunión de los vecinos, sobre todo los días lluviosos y, aunque ya desaparecido, de regocijo de los niños alrededor de las marchaneras (recordamos especialmente a Boni y Primi vendiendo golosinas). En 1965 y hasta 1974, Gerediaga Elkarte

organiza en su interior la Feria del Libro y Disco Vasco, que, con el tiempo, resulta emblemática en la vida cultural de Euskal Herria. Ha sido utilizado para todo tipo de usos: funciones religiosas, procesiones, recibimientos a los Reyes Magos, comuniones, bautizos



📷 Acto conmemorativo del bombardeo en 2024. Txelu Angoitia

(muchos recordamos cómo se lanzaban caramelos y monedas a los niños congregados frente a la puerta de la iglesia), funerales, etc. Son innumerables los actos sociales que se han realizado bajo su techo: conciertos de música, exhibiciones de dantzaris, de bertsolaris, mítines políticos y multitud de actividades diversas (por ejemplo, cada año se instala un stand para las rifas benéficas, primero del Hospital y después de la JAED).




📷 Euskal Astea 2005. Txelu Angoitia


En resumen, destacaremos el enorme valor patrimonial que supone el pórtico para la villa desde diferentes puntos de vista: históricos o de antigüedad, funcionales, calidad (proyectual, constructiva, integración urbana, ejecución, estado de conservación),

autenticidad (con sus marcas originales de montaje de carpintero) y, singularidad del edificio (a nivel del entorno inmediato, a nivel de la Península Ibérica o incluso a nivel europeo). Una joya que debemos conservar y transmitir a las próximas generaciones.

Arquitectura del pórtico



Estructura. Nivel de cabios de cubierta. Cabios del siglo XVII - Cabios del siglo XX



Estructura. Nivel de correas y tirantes de cubierta.

Su implantación está muy condicionada por la inclusión dentro del entramado de estrechas calles medievales. Las circulaciones de personas por el interior del pórtico se ven correspondidas con las entradas-salidas estratégicamente ubicadas en las direcciones

de Ezkurdi, Barrenkalea, Artekalea, Goienkalea y Kurutziaga, agilizando los flujos de los viandantes por el Casco Histórico. No obstante, se debe señalar que en el pasado el paso por el pórtico era mucho más permeable debido a la existencia de bancos de hierro del tipo mobiliario urbano entre las pilastras de piedra hasta prácticamente mediados del siglo XX en lugar de los actuales bancos corridos de piedra que cierran el paso entre los machones a excepción de las cinco entradas-salidas mencionadas.

La configuración estructural del pórtico está compuesta por 9 arcos de piezas de madera que van buscando los apoyos con cierto paralelismo en función del ritmo de las pilastras de piedra exteriores y condicionado por la ubicación de la puerta lateral meridional de la iglesia que da al pórtico. La estructura se complementa en sus dos extremos con dos semi arcos que permiten configurar la cubierta mediante pequeños faldones en abanico cerrando la cubrición contra los muros de la iglesia. Esta estructura de arcos y semi arcos se completa con tirantes y correas en su nivel superior que unen y rigidizan el conjunto entre arcos además de servir de sustento a los 417 cabios de cubierta, 110 de ellos originales del siglo

XVII que se agruparon en la intervención integral de 1990 en la zona este de los dos faldones de cubierta que dan hacia la calle Kurutziaga. En total, el pórtico se constituye de 703 piezas de madera de roble de diferentes escuadrías y posiciones.

Durango beti *gustuko!*

¡Siempre apetece!





D3 Arkitektoak

Euskal ondare historikoaren birgaltzean arkitektura bulego aditua, iraunkortasun irizpideak, energia eraginkortasuna eta eskura dauden baliabideak erabiliz.

Bezeraentzako ahalik eta emaitza hoberena lortzeko helburuarekin, proiektuak lantzeko eraikinen informazio zehatza jasotzen dugu gaur egungo teknika modernoekin.

Horrek eraikin osoa egoki interpretatzeko aukera ematen digu, elementu historikoekin adeitsuak izanik balioan jartzeko.



D3 Arquitectos

Estudio de arquitectura especializado en la rehabilitación del patrimonio histórico vasco, empleando criterios de sostenibilidad, eficiencia energética y economía de medios.

Con el objetivo de conseguir el mejor resultado para el cliente, empleamos las técnicas más modernas obteniendo información exhaustiva del edificio para la elaboración de los proyectos.

Esto nos permite realizar una correcta interpretación del conjunto siendo respetuosos con los elementos históricos para su puesta en valor.



D3
arquitectos

Elkartegia. Landako 4. Durango
616444297 - 652717900
info@d3arquitectos.com



NÉSTOR

BASTERRETxea

Euskaldun globala Durangaldean

 Garazi Arrizabalaga Cabrerizo |  Txelu Angoitia



PINTOREA,
DISEINATZAILEA,
MARRAZKILARIA,
ESKULTOREA,
ILUSTRATZAILEA,
ARKITEKTOA,
ZINEMAGILEA,
COLLAGEGILEA,
ARTISTA, IDAZLEA,
NEKAEZINA,
SORTZAILEA,
LANGILEA, BIHOTZ
ONEKOA, EUSKALDUNA,
BEHARGINA, AURRERAKOIA,
ERBESTERATUA...

Adjektibo hauekin eta beste hainbestekin deskriba daiteke Néstor Basterretxea. Aurten bere jaiotzaren 100 urteurrena ospatzen da eta efemeride hau oinarri hartuta, hainbat ekintza eta erakusketa egiten ari dira Euskal Herrian. Durangon ere, erakusketa bat inauguratuko da azaroaren amaieran: "Néstor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea" eta horrez gain, Azokako egunetan Gerediaga Elkarteak omenaldia egingo dio.

Néstor Basterretxea artistak leku garrantzitsua du Euskal Herriko Artearen Historian. Oteiza eta Chillidarekin batera, arte berri bati ekin zion, euskal abangoardien belaunaldi berri eta apurtzaile bat osatuz, eta, horrela, tokiko kulturaren garrantzi handia hartuz. Basterretxea gehien bat eskultore gisa aintzatetsia izan zen, baina bere ekintza artistikoa haratago joan zen, nahiz eta bere lan guztiak ez diren modu berean aztertu.

Néstor Basterretxea artista 1924an jaio zen, Bermeon, eta 2014ko uztailaren 12an hil zen, Hondarribian. Bere bizitzako azken urteetan ugariak izan ziren bere figuraren omenaldi, ikerketa, atzera begirako erakusketa eta lan biografikoak. Eta aurretik esan bezala, aurten ere, bere figura eta lana euskal arte eta kulturaren erdigunean jarri dira, Chillidarekin batera, agenda kultural guztiak betetzeko.



 Néstor Basterretxea. Durangon 2012an.



Arrakasta honen atzean lan handia dago. 90 urterekin hil zen bermeotarra, eta azken egunera arte artelanak sortzen jarraitu zuen. Lan handi horren erakusgarri da bere ikurrek gure bizitzan duten presentzia, nahiz eta kontziente ez izan, Basterretxearen ikur, logo eta eskulturez hazi baikara herri honetan, bai eta Euskal Herrikan kanpo ere: Estatu Batuak, Argentina eta Frantzia. Kalitatezko produktuak kontsumitzen ditugunean, “bai euskarari” esaten dugunean, Euskal Museoa bisitatzen dugunean, Parlamentuko solasaldiak ikusten ditugunean edo hiri eta

herrietatik paseatzen dugunean eta bere eskulturak ikusten ditugunean. Ukaezina da, beraz, Basterretxea gure gizartearen sinboloa dela.




Basterretxeak erbestea bizi izan zuen txikitatik. 1936tik 1941era, Basterretxea familiak Frantziara alde egin behar izan zuen eta, Bigarren Mundu Gerrak eztanda egin zuenean, Buenos Airesera (Argentinara). Marrazketaren teknikan erakutsi zuen gaitasunak prestakuntza autodidakta garatzeko aukera eman zion eta, 20 urte besterik ez zituela, lortu zuen itsasoz haraindiko lehen lana publizitate-marrazkilari gisa. Bere lehenengo erakusketak Argentinan egin zituen.

1952an Europara bidaiatu, eta Jorge Oteizarekin Argentinan izan zuen harremana estutu egin zuen. Urte horretan bertan, eta Oteizak berak bultzatuta, Arantzazuko basilika berrirako kriptaren muralak egiteko aurkeztu zuen bere burua.



 Néstor Basterretxea Tabiran 2012an.





 Néstor Basterretxea *Hirugarren Hilarria* eskulturarekin. Tabiran 2012an.



 Eskultoreen Topaketan kartela Ezkurdiko Udal Kultura aretoan. 1980

Baina hauek azkenean ez ziren gauzatu, erlijio-komunitateak ez baitzituen begi onez hartu estilo espresionista eta mexikarra zuten horma-irudiak. 1984ra arte itxaron behar izan zuten bere lanek argia ikus zezaten, jatorrizko lanak gainetik pintatu eta gero.

Beharbada, sorterrian izandako gertakari honek azalduko du ordutik aurrera Estatuko arte-panoramarenganako modernotasun amorrua, bere lanaren ordezkari aldarrikatzaileena bihurtu dena. Espiritu inkonformista eta iker-tzailea zuenez, sormen-arloko abangoardiako talde garrantzitsuenetan eta proposamen artistiko berritzaileetan parte hartu zuen. “Equipo 57” taldearen sortzaileetako bat izan zen, eta Oteiza, Chillida, Mendiburu, Ruiz Balardi, Amable Arias eta Sistiagarekin batera, GAUR taldea osatu zuen.



📷 Néstor Basterretxea Garaiko udaletxean 2012an.

ESTILO BERRITZAILE HORI ERABILITAKO FORMA ETA KOLOREETAN IKUS DAITEKE, BAI ETA HORIEK ESPAZIOAREKIN DUTEN ERLAZIOAN ERE.

Konstruktibismoarekin antzekotasun handiak ikus daitezke, Bauhaus eskolaren edo eta De Stijl mugimendu artistikoaren tankerakoak. Baina, era berean, ez zituen inoiz utzi alde batera euskal kultura eta historia.

Euskal kulturaren ereserkia bihurtu da 1968an Basterretxeak Fernando Larruquertekin batera zuzendutako "Ama Lur" luzemetraia. Eta hemen kokatu dezakegu lehen aldiz Néstor Durangaldean; zehazki Garain. Izan ere, 1966an Gerediaga Elkarteak



📷 Garain filmatutako irudia *Amalur* pelikularentzat.

Ramón eta Valentín Zubiaurre anaiei omenezko erakusketa antolatu zuen, pintoreen jaiotetxean. Pilar Zubiaurreren gidaritzapean, 20 bat lan batu zituzten eta astebetetz egon ziren ikusgai (uztailaren 25etik 31ra). Bertatik euskal kulturaren pertsonaia esanguratsuak pasa ziren, horien artean Basterretxea

eta Larruquert. Garaiko herritarrez eta paisaiez maitemindu eta gero, hemen grabatu zituzten “Ama Lur” filmerako eszenak: dantzariak, base-ritarrak... bai eta Durangoko Santa Ana plaza, Kurutziagako gurutzea, Argiñeta eta Elorrioko Arespakotxaga jauregia ere.

Urte gutxira berriro aurkitu dezakegu Néstor Durangaldean; zehazki, inauguratu berria zen Durangoko Ezkurdiko Udal Kultura aretoan, 1970ean, urte horretan egin baitzituen zeramika, olio eta eskulturen erakusketa. Honen hari-ara eskuorri bat argiratu zen eta, bertan, honela deskribatu zuen erakutsitako lana: “Aurkezten ditudan zeramikazko plater apainduak, berez, ez dute alderdi berririk; izan ere, hondoan tonu txikiagoko pinturak dira, gero labean egosten den zeramikazko gainazal batean aplikatuak. Teknikak ez dakar (kasu honetan) kontzeptualdaketarik, ezta egin beharreko obraren aurrean jarrera berririk ere”. Argi uzten du, beraz, bere lanek beti dutela esentzia bera, teknika aldatzen bada ere esanahi berdina izaten jarraitzen baitu.



1973an berriro erakutsi zituen bere lanak Basterretxeak areto berean baina, kasu honetan Balerdi, Zumeta, Ortiz de Elgea, Yraola eta Baragañarekin batera. Eta 1980an hirugarrenez errepikatu zuen areto berean. Udaleko Kultura Aretoetako Arte Plastikoen Batzordeak antolatuta “Eskultureen topaketa” izenarekin batu ziren erakusketa berean Remigio Mendiburu, Néstor Basterretxea, Ricardo Ugarte eta Vicente Larrea, orduko euskal eskultura garaikidea erakusteko asmoz.



 Pilar de Zubiarre, Zubiaurre anaiei egindako omenaldian. Garai, 1966.



70 ETA 80KO HAMARKADETAKO LANEK, BIZI DUEN GIZARTEAREN KEZKEN ISLA, ADIERAZPEN ALDARRIKATZAILEA SAKONTZEN DUTE, NON “EUSKALDUNTASUNA”, EUSKARA, TRADIZIOA ETA ABARREN ADIERAZPENEK INDARRA HARTZEN DUTEN.

80ko hamarkadan, eskultura monumentalek protagonismoa hartuko dute bere produkzioan. Horren adibide dira garai horretan egindako lanak eta erakusketak, bai Euskal Herrian bai atzerrian.

1990ean, Basterretxeak Durangotik eskakizun bat jaso zuen. Victor Arrizabalaga artista durangarrak Aire Zabaleko Eskultura Museoa martxan jarri nahi izan zuen Durangon. Proiektu honekin euskal eskultura-ekoizpenaren garrantzia nabarmendu nahi izan zuen, planteamendu integratzaile eta koordinatu batetik hasita. Garaiko euskal eskultoreen la-

nen ezaugarriek aire zabalean egokitzapen erraza zutela jabetuta zegoen. Arrizabalagaren hasierako proiektuan 11 eskultore biltzen ziren, baina ez zen gauzatzerira iritsi. Horietatik bik bakarrik egin zuten aurrera, Vicente Larrearen “Abstrakzioa” lanak, zeina Durangoko Arte eta Historia Museoaren kanpoaldean baitago, eta Néstor Basterretxearen “Hirugarren Hilarria” eskulturak, Tabiran dagoena.

Azken hau, artistaren 1974ko jatorrizko obra bat du oinarri gisa. Eskala handiago batera egokitua izan zen kokaleku berrirako. Hala, zutabe baten gainean jarrita, 3,5 metroko altuerara iristen da. Tabira ermitaren ondoan kokatzea ezin hobea begitandu zitzaion artistari.

Azken finean, eskultura hilarrian oinarritzen da eta honek badu nolabaiteko erlazioa eremu erlijiosoe-kin. Hilarriaren forma bera, zirkularra, Basterretxearen lanen euskarri bezala ikus dezakegu. Artistaren hitzetan, zirkulua forma perfektua da, arte primitiboaren ikurra, Elorrioko Argiñetako nekropoliko estelak iradokitzen dituen. Bere lagun Jorge Oteiza bat zetorren ideia horrekin. Oteizak haratago eraman zuen teoria hau eta euskal harrespilen inguruan hau adierazi zuen: “ez ziren euskal luxu-gune komunitarioak, baizik eta «huts errepikatuak», helburu praktikorik gabeko babesleku espiritualak, non euskal esentziaren, estiloaren edo sentimenduaren jatorria aurkitzen baitzen”. Zirkunferentziaren gaira itzuliz, harrespilarekin batera beste funtsezko zutabe bat hilarria da. Haien gainean landutako diseinu geometriko eta naturala duten hilarri horiek lehen begiratuan arte zeltarekin erlaziona daitezke. Harri-garria bada ere, forma horiek gaur egun ere mantentzen dira, eta altzarien dekorazioetan edo bitxien diseinuan ikus daitezke. Esan daiteke, beraz, euskal arimak hilarriaren forma geometriko horretan aurkitu zuela bere esentzia, eta horregatik, Euskal Eskolak

bere ekoizpenetan hura berrinterpretatzen eta berraktibatzen ere jardun zuen.

Zirkuluaz gain, hilarrian forma geometrikoak ikus daitezke, zirkulutik irteten edo sartzen ariko balira bezala. Hala, nolabaiteko giza izaera hartzen du, abstrakzioarik galdu gabe. Abstrakzioaren inguruan horrela mintzatzen zen Basterretxea: “publikoarengandik urrun dago, baina ahalmen gogorazle espiritualagoa du, sakonagoa. Pixka bat misterioitsuagoa”. Hilarri batean azaltzeko perfektua, alegia.



 Hirugarren Hilarria obraren montajea. Tabira 1990ean.


BADU BERMEOTARRAK BESTE KALE ESKULTURA BAT DURANGALDEAN; ZEHAZKI OTXANDIOKO ANDIKONA PLAZAN KOKATZEN DEN “HERIOTZA ZERUTIK ETORRI JAKUN”, 6 METROKO ALTUERA DUEN ALTZAIRUZKO PIEZA BERTIKALA, HERRIKO ENPRESA BATEK EGINIKOA.



2011ko uztailaren 22an inauguratu zuten, herriak jasandako bonbardaketaren 75. urteurrenean. Horrela mintzatu zen Basterretxea eskulturaren sorkuntzari buruz galdetu ziotenean: “Eskultura egiteko aukera eskaini zidatenean, segituan onartu nuen; batez ere, bi arrazoiengatik. Lehenik eta behin, bere esanahiagatik; ikaragarria izan zen hura, hainbeste hildako, baita umeak ere... lehenengo horregatik. Bestalde, Otxandioko herriak gerra zibila lehertu zela jakin barik jasan zuen bonbardaketa hori, guda hasteaz bat gertatu zen-eta. Gertakari horren lekukoa izan behar zuela iruditu zitzaidan. Horrez gainera, eta neurri txikiago batean bada ere, ni txikitan Otxandiora joaten nintzelako ere bai. Nire aitaren aldeko amama bertakoa zen, eta, egia esateko, horrek begikotasun bat pizten dit Otxandioko herriarekiko. Batez ere, bi arrazoi horiek bultzatu naute eskultura egitera”.



📷 Néstor Basterretxea. *Heriotza zerutik etorri jakun*
eskulturaren inaugurazioan. Otxandio, 2011.



📷 Néstor Basterretxea 2012ko Durangoko Azokan bere kartelarekin.

Urte bat beranduago, 2011, 88 urterekin, Basterretxeak azkenengo enkargua jaso zuen Durangaldetik. Urte horretako Durangoko Azokako kartela diseinatze-ko eskatu zioten. Azken urteetako joera apurtuta, zuzeneko eskaria egin zioten artistari eta honek azken denboraldian lantzen hasi zen teknikaren bidez gauzatu zuen kartela: collagea baliatuta, hain zuzen ere. Azken urteetan collagea, marrazkiarekin batera, artistaren teknikarik gogokoena izatera pasa zen.

DISEINATUTAKO LERROEN ETA MATERIALEN TESTUREN ARTEKO TOPAKETA TRESNA EGOKIA IZAN ZEN HIRUGARREN DIMENTSIOA BI DIMENTSIOKO AZALERA BATEAN IKUSARAZTEKO.



📷 Néstor Basterretxea Durangoko Arte eta Historia Museoa bisitatzen. 2012.

Izan ere, marrazkia inoiz utzi ez bazuen ere, teknika horrek dituen mugak apurtzeak bultzatu zuten Basterretxea collagearekin probatzera. Kartelean argazkia erabiltzen du collagea egiteko; zehazki, telebista matxuratzen denean ikusten diren kolore nahasmenak azaltzen dituen argazkia, normalean zatartasuna ikusten dugun lekuetan Basterretxeak argia eta edertasuna ikusten zituelako. Teknika guztiz berritzailea, eta Azokarako guztiz freskoa zen kontzeptua ere izan zen irudi hau. Horrela definitu zuen artistak bere lana, Azokaren harira egindako elkarrizketa batean: «Durangoko Azoka aparteko gertaera da, indar intelektual apartekoa, gure bizitza modernoa euskal herritar gisa definitzen duen ahots indartsua, eta kartela, erabilitako prozeduraz

berritzailea dena, kulturaren eztanda hori nolabaiteko zorroztasunez irudikatzen saiatzen da».

Bere heriotzaren ostean Basterretxearen presentzia gutxitu egin da gure artean, aurren arte. Izan ere, bere jaiotzaren 100. urteurrena ospatzen den honetan, Euskal Herriko 20 erakunde baino gehiago batu dira bere lana ezagutzera emateko eta merezitako omenaldia eskaintzeko. Kasu honetan, Durangoko Arte eta Historia Museoa eta Gere-diaga Elkartea batu dira Durangon ekintza desberdinak gauatzeko artista bermeotarraren omenez. Alde batetik, museoa, **“Néstor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea”** erakusketa egon da azaroaren 28tik 2025eko otsailaren 2ra bitartean. Bertan, Argentinan egindako lehenengo ilustrazioetatik hasita, marrazki, kartel, logo eta gure izaeraren ikur diren diseinuetara arteko ibilbidea ikusi ahal izango da. Obra batzuk estreinakoz jarriko dira publikoaren eskura. Bestalde, Gerediaga Elkartean Azoka egunetan Basterretxearen ekarpena zein izan den ulertzeko eta ezagutzera emateko hitzaldi, mahai-inguru edota tailerrak antolatuko dira.

Argi dago bermeotarrak Durangaldearekiko harreman estua izan zuela. Bere seme-alabei galdetuta ere horrela esaten dute: “Aitak estima handia zion Durangaldeari”. Ez diogu, beraz, besterik esango. Eskerrik asko zure estimuagatik eta zure presentzia gure artean uzteagatik, Néstor!

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo

Durangoko Arte eta Historia Museoko zuzendaria



Okm:

batzen gaituen
distantzia

abantaila
guztiak
hemen >



Egin zaitez anbotokide!

30€
urtean!

anboto
kide



TUMATXA!
GAZTEAK

www.tumatxa.eus

Gazte euskaldunei zuzendutako plataforma digitala



Los Ampuero

Una familia
emprendedora
de Durango



Igor Basterretxea Kerexeta



Txelu Angoitia - Archivos



Escultura en la plaza Bruno Mauricio de Zabala en Montevideo.





Los Ampuero, originarios del pueblo cántabro homónimo, enlazan con la villa de Durango el día 18 de febrero de 1765, fecha en que se produce el matrimonio entre Juan Agustín de Maguna y Eguia y doña María Joaquina de Ampuero y Urquijo. Para entonces, los Ampuero llevaban ya un par de generaciones en Bilbao, donde, llegados desde Castro Urdiales, habían vestido el hábito de Santiago, creado diferentes mayorazgos y unido a las familias más influyentes de la capital vizcaína.


Luego, muerta ya María Joaquina, su hija Eulalia de Maguna y Ampuero casará en 1790 con un primo suyo, el teniente de navío Pedro María de Ampuero y Musarieta. Desde entonces, acorde a su linaje, ha sido una familia referente en Durango, ocupando un lugar destacado en la historia política y económica del país.

Pero vayamos atrás en el tiempo...

De una casería de Eibar a Elgeta y, luego, a Durango.

Para 1452 sabemos que **Martín López de Ibarra y su hermana María**, los primeros Ibarra de los que tenemos constancia, moraban en la casería homónima de Eibar. Un hijo de María, **Pedro Abad de Ibarra**, clérigo de la iglesia de San Andrés (Eibar), tendrá cuatro hijos con una moza llamada Andresa de Pagoaga. De ellos, el primogénito, **Francisco Pérez de Ibarra**, será licenciado, situándose bajo las órdenes del condestable de Castilla —duque de Frías y conde de Haro—, y casará con María Pérez de Marquiegui y Mallea, vecina de Elgeta. El matrimonio tiene cinco hijos.

Uno de ellos, el licenciado **Pedro Sáez de Ibarra**, tras casarse con María de Arandía, se establecerá en Durango. Y, muerta María, volverá a contraer matrimonio con una Urquieta, pasando toda la familia a instalarse en las casas de Etxezuria: “unas casas fuera de la muralla, junto a una de las puertas de la villa”. Pedro llegará a ser corregidor de Ponferrada, en el reino de León, y finalizará su carrera como inquisidor en Toledo. Otro hijo de Francisco fue **Diego Sáez de Ibarra**, quien, ante la llamada de su tío Miguel Pérez de Ibarra, se presenta en México en 1540, con 19 años. El joven Diego tomará parte en la colonización de Zacatecas y llegará a ser yerno del virrey de Nueva España, el señor Luis de Velasco. Después, Diego repite la llamada familiar y le pide a su hermano Pedro Sáez que envíe a algún hijo suyo. Pedro piensa en Francisco de Ibarra y Arandía.



Monumento a Francisco de Ibarra en Durango (México).

El fundador de Durango –en México– y el oidor de Charcas.

En 1554, con unos 17 años, **Francisco de Ibarra y Arandía** comienza la conquista de lo que será Nueva Vizcaya. Descrito por sus compañeros, al principio, como “barbilampiño”, años después el propio virrey Velasco dirá de él que era “un hombre virtuoso y bastante, y el que más noticia ha tenido de la tierra”.

Francisco descubrió las minas de San Martín, además de poner en explotación las de Inde y Santa Bárbara; ocupó el cargo de Gobernador “de la tierra adentro” —Nueva Vizcaya— entre 1562 y 1576, y fundó la población de Durango en México, el 8 de julio de 1563. Diez años después, en 1573, Francisco detallaba dicha fundación así: “Hallé amplísimas tierras para sembrar y para dehesas de ganado mayor y menor, y fundé otra villa que le puse por nombre la villa de Durango, como mi patria”.



📍 Durango (México).

Francisco muere el 17 de agosto de 1575, arruinado. Continuando las llamadas familiares, su sucesor en el cargo de gobernador de Nueva Vizcaya debía de ser un hermano suyo, el licenciado Juan. Sin embargo, éste nunca llegó a América al morir repentinamente en Cádiz, estando a punto de embarcar. Hay que buscar otro candidato, y el elegido es **Antonio de Ibarra**, hijo de un primo suyo.

En México, Antonio hará una rápida carrera judicial y, tras darse a conocer como el bachiller Ibarra, pronto obtendrá el título de doctor. En lo que a cargos se refiere: primero, ocupará el cargo de fiscal interino en la audiencia de Lima; luego, el de fiscal de la audiencia de Charcas, y, finalmente, el de oidor, también en Charcas, en 1613. Antonio se casa con Ana María de Zarate, hija del maestre de campo Pedro de Zarate, que había sido alcalde de Lima. Conspiran contra él e intentan asesinarlo, sin embargo, muere por causas naturales en 1621.

Así, entramos de lleno en los Zabala y, en un salto de tres generaciones, llegamos hasta nuestro siguiente protagonista: Bruno Mauricio de Zabala y Gortazar.

El fundador de Montevideo.

Bruno Mauricio de Zabala, huérfano, se criará con doña Francisca de Recalde, suegra de su difunta hermana Rosa. En 1696, gracias a los contactos de Pedro, un hermanastro criollo suyo que se encuentra en Flandes, entra a servir en Madrid para don Gabriel de Ponce. Cuatro años después, en 1700, lo encontramos en Flandes como alférez de un tercio, bajo las órdenes de don Juan de Idiáquez. Después, recibe el título de caballero de Calatrava, como su padre, y para 1704 está de vuelta en Durango.

En plena guerra de Sucesión española, muerto Carlos II, tomará parte en diferentes sitios y batallas hasta que, en Lérida, pierde un brazo; tiene 25 años y lleva 10 de servicio. Nombrado luego coronel, en 1708 se instala en la Corte —en Madrid—, pero, dos años después es requerido de nuevo en el frente catalán. En 1712, finalizada la guerra tras la paz de Utrecht y con un brazo de plata, está esperando destino. Éste será el de “gobernador y capitán general de la ciudad de Trinidad y puerto de Buenos Aires”. De hecho, ascendido a mariscal de campo, el 10 de julio de 1717 está en América. Allí, sus conflictos con los portugueses serán continuos.



 Sello conmemorativo de Bruno Mauricio Zabala.

El día de Navidad de 1729, en carta a su sobrino “Matxin”, con quien había crecido, escribe: “Ha siete días —es decir, 18 de diciembre—, que me hallo en esta nueva población de Montevideo”. De esta manera tan escueta resume Bruno lo que fue la fundación de la ciudad de Montevideo. Posteriormente, continuará por Chile, donde ocupará los cargos de gobernador y capitán, y luego volverá a Paraguay, a pacificar aquellas tierras. El 31 de enero de 1736, yendo de Asunción a Buenos Aires, halla la muerte.



 Casa natal de Bruno Mauricio de Zabala en Durango.

El líder de los hidalgos armados vascos que será alcalde de Bilbao.

En otro nuevo salto damos con **Pedro María Ramón de Ampuero y Musarieta**. Nacido en 1764, el marido y primo de doña Eulalia de Maguna y Ampuero, acometerá una carrera militar meteórica: con 18 años ingresa en el Real Cuerpo de Guardiamarinas, tres años después es alférez, y en 1789 alférez de Navío. Su primera misión, hacia 1785, le lleva a Cartagena de Indias.

Tras la muerte de su padre, en 1792, se interesa por la administración de su patrimonio en Durango. Así,

en un libro con pastas de pergamino, escribió: “Libro de arriendos de las casas, caseríos, ferrerías, molinos y demás bienes que gozo en Durango, correspondientes a los vínculos de la casa de Maguna”.

Le pillan la guerra de la Convención en Durango. Y, conocedor el Señorío de que las tropas francesas han tomado San Sebastián y saqueado Éibar, coloca a Ampuero como comandante de más de 12.000 hombres armados. Junto con otros grupos armados de hidalgos guipuzcoanos se colocará en Irure, desde donde frenará en varias ocasiones a los franceses. Aun así, éstos alcanzarán Durango por otras vías el 13 de julio de 1795, nueve días antes de firmar la paz de Basilea.



 Casilda de Gandarias y Durandoña.



 Ramón de Ampuero, retratado por Valentín Zubiaurre.



Escudo del caserío de Bitáño.



José Joaquín de Ampuero y Maguna .



Cartilla agrícola escrita por José María de Ampuero en 1909.

También le toca de lleno la Zamacolada, siendo condenado por Godoy al pago de 2.000 ducados o al destierro de Vizcaya durante dos años; y la guerra de la independencia, en la que nuevamente en Bilbao, en 1808, ya jubilado, se pone al frente de un conato de insurrección. Años complejos que finalizan en 1812 con la expulsión de los franceses de España y con Ampuero como primer alcalde constitucional de Bilbao.


Nuestro personaje muere en 1824 en la capital vizcaína, a los 60 años. Antes, había conseguido su purificación en carta al rey. Muere tranquilo.

Carlista, rentista, gestor cultural, escritor y, además, político.

Otro Ampuero para recordar es **José María de Ampuero Jauregui**. En 1845 visita Durango la reina Isabel II, José María es un niño de 7 años que no imagina los derroteros ideológicos que iba a tomar en su vida. Igualmente, con 23 años y estando en el balneario de Vichy —Girona—, compartirá mesa con liberales como el general Prim, Güell o Renté. Cómo imaginar entonces que, aquel muchacho tolerante, se convertiría en un maduro intransigente. La influencia de sus tíos Juan de Orue y Ramón de Echezarreta, ambos de ideología carlo-integrista, es clara.




 Carlos VII.



 José María de Ampuero y Jauregui.

Durante el tiempo de la tercera guerra civil o guerra carlista, Ampuero financia a don Carlos. Éste, en retirada desde Guipúzcoa, en 1874 se instala en Durango, siendo la villa su Corte durante dos años y medio. Primero se aloja en casa de los Orue, contigua a Etxezuria, y luego en ésta, para finalmente trasladarse a la de los Arguinzoniz. José María también colabora con la red para ayudar, auxiliar y socorrer a los heridos de la guerra, denominada *La Caridad* y creada por doña Margarita de Borbón y Parma, mujer de don Carlos.

El 28 de febrero de 1876 don Carlos cruza la frontera a Francia. La guerra ha concluido. Los Ampuero, por si acaso, pasarán unos meses en Francia. Dos años más tarde, José María manda levantar un chalé en el jardín de Etxezuria, en la parte más elevada del terreno, y en 1880, cuando surge la sociedad *Ferrocarril Central de Vizcaya, de Bilbao a Durango SA*, pasa a ser accionista con un capital de 25.000 pesetas.



Planos del chalet de Etxezuria.



Etxezuria en los años 50 del siglo XX. Foto Sol

Entonces, empieza su carrera política: diputado provincial en 1880 y diputado en Madrid en 1881. En 1885, como gran amante de la cultura vasca que era, organizó, a instancias de su amigo Antoine d'Abadie, una edición de las *Euskal Jaia*k en Durango, durante las cuales se homenajeó la me-

moria del músico durangués Astarloa. Ampuero, hombre inquieto, también fue autor de publicaciones agronómicas.

En 1907 es senador en Madrid por Vizcaya, y tres años después reelegido por Guipúzcoa. También en estos años se erige la estatua a Bruno en Montevideo, acontecimiento que entre redacción de cartas y hallazgo de fotos tendrá más que entretenido a José María. Muere el 13 de septiembre de 1917.

A su muerte, gracias a sus bienes, podemos observar que este carlista del sector duro, a su vez, era un gran rentista e inversor. Poseía diferentes participaciones en importantes empresas, como *La Polar*, los *Ferrocarriles Vascongados* o el *Banco Bilbao*, y numerosos censos.



 Casa de los Ampuero en Neguri.



 Euskal Jaia en 1886. Felipe Arresebeitia en Etzeturia.



 Firma del Concierto Económico en 1906. José Joaquín de Ampuero y del Río. (Primero, sentado por la derecha)



 José María de Ampuero y su hija (en el centro) en un acto de la Juventud Jaimista. Durango, 1912.



Etexezuria en la actualidad.



Caserío de Bitáño (Izurtza), propiedad de la familia Ampuero.



 Pedro de Ampuero y Gandarias y José Joaquín de Ampuero y del Río, padre e hijo.

Los últimos banqueros.

La línea continúa con **José Joaquín de Ampuero y del Río**, quien, en un principio, será diputado provincial de Vizcaya —por la corriente carlista— desde 1901 a 1912, tomando parte en las negociaciones y firma del Concierto Económico de 1906, para luego dar el salto a nivel nacional, en 1916 como diputado a Cortes y en 1920 como senador. Pero, a diferencia de su padre, Joaquín entrará en los Consejos de Administración del *Banco Bilbao* y de su filial, el del *Comercio*, desde 1903 hasta su muerte en 1932. Con lo que los Ampuero, aunque, en lo que a la política respecta, no varían su estrategia, a nivel económico sí dan un salto importante, pasando de ser rentistas e inversores con José María, a también empresarios

y banqueros con José Joaquín y su hijo **Pedro de Ampuero y Gandarias**.

Por último, **José Domingo de Ampuero y Osma “Pepe”** es el actual patriarca de los Ampuero. Ingeniero y empresario, fue vicepresidente del *Banco Bilbao Bizkaia* hasta 2002, y actualmente es presidente de *Viscofan* desde 2009, y presidente también de *Avasa* y director de la corporación financiera *Alba* desde 2015.

Igor Basterretxea Kerexeta

Historiador



IZURTZA
UDALA

www.izurtza.eus
94 681 35 48



Elorrioko udala

Bisitatu Elorrio inoiz ez bezala

Gida birtuala



Elorrioren historia eta txoko
esanguratsuenak ezagutu!

Familia-esperientzia



Bizi Lur errementarien kondaira.
Jolastu eta ikasi Elorrio ezagutzen
duzun bitartean!

**Jolasak, errekreazioak,
bideoak eta askoz gehiago.**

Eskuko
telefonorako
aplikazio
berria



Una guía
virtual
innovadora
en tu teléfono





Arantza Arrazola | Txelu Angoitia

KARRIKA

25 urtez Durangoko ametsen faktoria izaten

Karrika eta bion arteko harremanaz pentsatzen jarrita ez zela bat bateko maitasuna izan esango nuke. Kontrara, egunero autobus geltokian ikusten duzun horretaz maitemintzen zarenekoaren antz handiagoa dauka. Izen ere pareko bidea izan dugu biok antzerkiaren munduan.







 "Lurra astinduz" obraren aurkezpena. 2011

San Agustin Kultur Gunea 1998an zabaldu zen, eta ordutik nago hemendik ni ere. Sasoi hartan, Arte eta Historia Museoa arduratzen zen kudeaketaz; ondoren, herriko elkarteek (Berbaroa, Kriskitin eta Gerediaga) hartu zuten ardura hori. Eta gainontzeko lan guztietarako enpresa bat azpikontratatzeko zen eta hortxe nengoen ni leihatilan txartelak saltzen.

Urte hartan bertan, 1998an, Durangoko antzerki-gintzan beste mugarri bat jarri zen, izan ere esparru ezberdinetako zenbait irakasle eta hezitzailek gazteei zuzendutako antzerki tailer bat sortzea erabaki zuten, norabide argi batekin: gazteen sormena bultzatzea, ikuskizunak euskara hutsez sortzea eta plazaratzea. Eta irudia eta soinua plastikaren mesedetan erabiltzea. Karrika izena jarri zioten.

Fray Juan de Zumarraga Institutuak, Kurutziaga Ikastolak eta Berbaroa Elkarteak asmatu zuten proiektua xumea zen, handinahikeriarik bakoa, bai ordea ametssez eta asmo onez jantzia. Proiektu sendoa izatea nahi zuten, ezaguna eta durangarren artean ondo errotutakoa... 26 urteren ondoren ikusitakoak ikusita argi dago aspaldi lortu zituztela helburuok.

Joxe Martin Urrutia, *Txotxek*, hartu zuen taldea gidatzeko ardura. Kurutziaga Ikastolan DBH orientatzailea izateaz gain antzerkian bazuen esperientzia. Elgoibarko *Ekekei* antzerki taldeko kide baitzen, erdi amateur erdi profesionala zen taldea (80. hamarkadako ia denak bezala). Txotxe definitzekotan 2 berba erabiliko nituzke *kritikoa* eta *sortzailea*: idazle trebea, kontari hobe, poeta sakona, margolari aparta, tramankulu asmatzaile bikaina... Barku honetarako ezin zen kapitain hoberik aukeratu.



📷 "Ametsen faktoria" obra hasteko prest. Kamarari begira, Txotxe Urrutia.



📷 Karrikaren lokalaren atea.





Maite Lopez

26 urte karrikan

"Ez da erraza niretzat Karrika zer den laburbiltzea... 17 urterekin, aurrean bide eta aukera denak sudurraren aurrean dituzunean, erabaki "txiki" batek zure etorkizun osoa alda dezake. Nirea? Antzerki klaseetara joatea. Kurtso baterako konpromisoa zena... 26 urteko ibilbidea bihurtu da. Bizitza oso bat".



📷 "Zapoi". 2015



📷 "Martxoak 31". 2007



📷 "Hau ez da Kalkuta". 2009

Institutuko lokaletan hasi ziren entseatzen 15-20 ikasle; eszenografia, jantziak eta elementu plastikoak Kurutziaga Ikastolako eskulan tailerrean sortzen ziren. Eta hortxe topatu zituzten lehen ikusleak ere, ikastolako eta institutuko ikasleen artean. Holako publiko batentzat lan arinak prestatzen direla pentsatuko luke edonork... Karrikan, baina, gauzak ez dira horrela egiten, gogoetarako gai potoloak proposatzen dituzte beti, nahiz eta gero akrobazia, umorea eta traman-kuluekin arindu. *Fartsan* biolentziaren erabilera landu zuten, *Kokopeli komandoak* selektibitate azterketa salatzen zuen, *Zubi gizakiak*-en emigratzeko arrazoiak aztertu zituzten, *Prostibuloan* argi dago gaia zein zen...

Ordurako 4 urte pasatuta ziren, eta ni San Agustineko dinamizatzaile izendatu ninduten. Hori bai erronka! Dena egiteko zegoen, programazio irizpideak ezarri, publikoa erakarri, bazkideak sortu... jakin banekien Institutuan antzerkia egiten zuen talde bat ba zegoe-

la ... baina zintzoa izanda, kasu handirik ez nien egin, harik eta ate joka San Agustineria etorri ziren arte.

Gure bideak elkartu ziren

Durango Tabira 1440 Durangoko Heresiari buruzko antzezlan prestatu gura zuten, eta San Agustinen estreinatu. Onartu behar dut sorpresa ederra hartu nuela ezagutu nituenean: gazteak ziren, asko ziren, jaioak ziren, baita trebeak ere. Eta batak bestea ekartzen duen moduan astero entseatzeko egun bat adostu genuen, asteazkenak. Halaxe hasi ginen Karrika eta biok autobus berera igotzen.

Txintxin mugaz bestaldeko kasinoa-k jarraitu zion, kapitalismoari lotutako merkantilismoa salatzeko. Txotxek asko maite zituen gai sakon eta korapilatsuak. Burutik zebilkiona errealitate egin orduko gazteei botatzen zien, taldean hausnartzen zuten, emaitza eszenan askatzeko.



Miren Erdoiza

Karrikan 2008tik 2018ra

Karrikak eman dit leku bat. Tabirako zelaian eta Landakoko Polikiroldegian ez neukana. Eman dit leku bat mundua bertatik begiratzeko, eta baita munduak ni ikusteko ere. Lekua eman dit lehenengoz asanblada bat zer den ezagutzeko, igandetako bazkariak (beste) familia batekin igaro daitezkeela ikusteko, furgoneta (hori) bat zein ederra den ulertzeko. Lekua eman dit nire gorputza ezagutzeko, erakusteko eta erabiltzeko. Karrikak eman dit lekua nire lehen hilerokoa bizitzeko, nire lehen muxuak kontatzeko, eta nire lehen ajeak jasateko. Leku bat behar duen orori zabaldu dizkio ateak beti Karrikak, ez dadila haria eten.



A woman with curly hair, wearing a black corset and a gold sequined skirt, is performing on a stage. She has a red mark on her forehead and is looking upwards with an open mouth. The background is dark with some stage equipment visible.

📷 Txoteri egindako omenaldia. 2018

A theatrical performance on a stage. A large, yellow, winged figure stands in the center. To the left, a woman in a yellow dress is looking towards the center. To the right, a man in a black costume with a turban is looking towards the center. In the background, a woman is lying in a bed. The stage is lit with warm, orange light.

📷 "Nabigatu dezagun". 2005



📷 Durangoko Azokaren 50. urteurreneko ekitaldia. 2015

2007arekin Durangoko Bonbaketaren 70. urteurrena ere etorri zen. Erronka udaletxetik jaso zuten, gaiaren inguruko antzezlan bat egiteko proposamena luzatu zielako Udalak. Pozarren onartu zuen gure pirata tripulazioak; *Martxoak 31* antzezlanak izan zen emaitza.

Ordurako autobusean bata bestearen ondoan jesarrita joaten ginen, *Martxoak 31* rekin total maitemindu arte. Zer zen hori! Testu mardulak, tripetatik idatziak eta ozen ahoskatuak, San Agustineko hormatan hegazkin hiltzaileak hegan, metrailetak bozgorailuetatik borbor, hanka-palutan txori beltzak jendartetik, eta bat-batean isiltasuna, beldurra, samina, tristura, nora eza nerabe koadrila honen begietan.

Atera kontuak zelakoa izango zen, ezen, egunotan udalak gonbidatutako Dresdeneke ikasle-irakasle talde batek lana primeran ulertu baitzuen, eta bereak eta bi egin zituzten Karrika Alemaniara gon-

bidatzeko; ezinezkoa izan zen, izan ere, Karrikako eszenografiak aparteko kapitulu baterako ematen dute, eta hori beste baterako utziko dut. Argi dago baina, lan honekin Karrika Antzerki Taldea herriko talde bihurtu zela.

Eta gu berriz, elkar maitemintzetik sinbiosira di-dabatean. 2008an San Agustinek eta Karrikak 10 urte bete zuten. *Ametzen faktoria* lanarekin ospatu genuen. Mañaria errekatik behera gauerdian kriseluen argitan zetozen ametsak hasten zuten obra, ametsok oholtzan egia bihurtzen ziren arte. Ba al dago antzoki batentzat *Ametzen faktoria* baino metafora ederragorik?

Hortik aurrera Karrika eta San Agustinen arteko harremana estutzen joan zen, eta harrezkero elkarrekin egin ditugu bazkidetza kanpainak, bisita gidatuak, komunitatea sortzeko lanak, enkarguak...





Patricia Urrutia

Karrikako zuzendaria

Antzerkia da Karrika. Antzerki hutsa. Antzerkiarekiko benetako maitasuna, modu eta adierazpen guztietan: herri antzerkia, sorkuntzarako askatasun esparru den antzerkia, hamaika saltsetan sartzen den antzerkia, top-top antzerkia. Karrika da izan direnak, direnak eta izango direnak. Eta familia bat ere bada Karrika. Besoak zabal-zabal barne hartu nauen antzerki-maitale familia xeble bat, antzerkilari argi, ausart, eskuzabal eta maila apartakoez osatua. Niretzat gozamena eta ohorea da Karrika familiaren parte izatea.



 Durangoko bonbardaketaren urteurreneko ibilaldia. 2012

Karrika Durangotik Euskal Herrira

2011n Durango 1936 elkartearen enkargua jaso zuten eta *Lurra Astinduz* antzezlanaren izan zen emaitza. Oraingoan ere Durangori oso lotutako gaia jorratu zuten eta antzerki konpainia legez urrats garrantzitsua eman zuten, Durangotik kanpora antzeztzen hasi baitziren: Deban, Elorrion, Berrizen, Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketan, Arrasaten eta Donostiako Antzoki Zaharrean. Doazen lekura doazela harro diote durangarrak direla. Ondotik etorriko dira *Inungane*, *Izarrak Marrazten* eta *Zapoi*.

Karrika nagusi bihurtu da, eta, Euskal Herriko antzerki amateurraren munduan ate handitik sartzen da. Baina Karrikaz aparte bertako kideak ere nagusi egin dira. Hala mila eratako lan eta enkargu hartzeko prest daude, besteak beste, Berbarok Antolatutako Haur Literatur Aretoari lotutako antzerki

piezak egitea, Gerediagaren azken Argizaiolaren ekitaldia, Durangoko Azokaren irekiera eta itxierak, Udaleko Immigrazio sailetik jasotakoak, Zugan Ni gazteak antzerkiratzeko proiektua...

Gure arteko sinbiosia ardo onduak bezala, pausatzen doa, antzerkiarekin erabat konprometitutako gazte —ez hain gazte— horiek bezala. Askok antzerkigintza afiziotik ofizio egiteko hautua egiten baitute. Karrikako tripulazioa osatu duten ia 150 lagunetako 10 batek gaur egun antzeztzen, eskolak ematen, ekoizten edota teknikari lanak egiten topatu dute ogibidea.

2017a saminez eta maitasunez iltzatuta dago gutariko bakoitzaren gogo-bihotzetan, Txotxek idatzi eta zuzendutako azken lana izango baita *Deshakesperazioa*. Tragedia eta komediaren harakinak aiztoa



📷 "Lurra astinduz". 2011

lumagatik utziko du. Karrika umezurtz, doluan eta noraezean murgilduko da, ozeano amaigabea norabide barik nabigatzen duen barkua bezala. Harik eta bat batean Patricia Urrutia aktorea eta antzerki zuzendariarekin tupust egiten duten arte. Urrutia baten erreleboa beste Urrutia batek hartzen du, akaso urrutiko irlekin amesten duelako gure antzerki konpainiak.

Karrika Txotxe barik, antzerkiak jarraitu dezala

Patriciak tinko obatu du timoia norabide aldaketara sakona proposatuz. Testua eta plastika lehene-tsi beharrean orain gorputzak hartzen du indarra, klownaren bidez jolasa eta barrea gailentzen dira gaur eguneko Karrikan, dibertimenduan, bizitzaren alde ironikoa, absurdoa, baina ez horregatik arina edo funtsik gabea.

Egun, zalantzarik ez daukat Karrika Durangoko antzerki konpainia dela, herrian erreferentziadun kultur elkarte, eta ziur nago hala izaten jarraituko dela, *ametsak marrazten* jarraitu gura dugulako. Gure autobusak bide luzea du oraindik.

Eta amaitzeko, Txotxek 2017an Karrikari buruz idatzitakoa baino hitz hoberik ez dago: "Arratsaldeko bostak markatzen duen longitudea, asteazkenak markatzen duen latitudea, beti artizarrari begira hartzen baditugu, aurkitu dezakegun uhartea Karrika da"

Arantza Arrazola

San Agustin Kultur Guneako arduraduna



Iurreta
Eleizateko Udala



HAZ Herritarren
SAC Arreta Zerbitzua
Servicio de
Atención Ciudadana

Bidebarrieta, 5
48215-Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 201 200
haz-sac@iurreta.eus
www.iurreta.eus

**HIRU UREN
ARTEAN
SORTZEN
ARI GAREN
HERRIA**

Zaldibar



Zaldibar
Elizateko Udala

Sar zaitez / Entra en
www.zaldibar.eus





Barruko ibilbideak

📷 Txelu Angoitia

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.

Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.

Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da “gure aberri bakarra”.

Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urlarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat.

Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude.







VICTOR ARRIZABALAGA


Angurreta Harrobia Arte Espazioa,
Mañariko Harri-Lorategia

Beti bildu izan ditut paisaiak nire oroimenean.

Leku batzuek, edertasunagatik eta transmititzen duten energiagatik, gure begirada eraldatzen dute, eta inspirazio-iturri bihurtzen dira, arteaz eta naturaz harmonia perfektuan gozatzeko.

Angurreta Harrobia da adibide paradigmatico bat. Espazio magiko horretan, denbora geldituta dagoela dirudi, malenkonia lasaia eta gogo espirituala eraginez, gure bizi-esentziarekin lotzen gaituena.





LEIRE MILIKUA

Gerediaga auzoa, Abadiño

Uxar inguruan zaildu zitzaizkidan belaunak;
Matienako plazan urratu abarketak, izatekotan.
Hatsa berreskuratzeko jo behar izan nituen hondoa eta gailurra.

Leku honek hori guztiori gogorarazten dit konpainiarik onenean:
Mari(Paz) aurrean, Mari atzean.







KARLOS ERIZ

Gaztetxea gure etxea, Elorrio

Gazte gara gazte eta ez gaude konforme, mundu garbiago bat bizi nahi genduke abesten zuen Lourdes Iriondok umemokoak ginelarik.

Hogeitagutxi urterekin, eta kostata, okupatu genuen gaztetxea. *¡Salve Regina!*, mater misericordia. La Polla Records zen gure talderik kuttunena, eta Evaristo gure profeta. Beno, eta RIPEko Carlos Mahoma, eta Natxo Cicatriz...


Egun, bizarra urdintzen eta burugaineko zuloa handitzen ari zaigun sasoian Belako, Berri Txarrak edo Zea Mays bezalako taldeekin gozatzen dugu gehien. Ahots tzarra Aroa Renteriarena...

Bai, oraindik ere gaztetxera joaten naiz baina harrokeriarik gabe, egindakoarekin harro baizik; hunkitu egiten naiz egungo gazteen jarreraz eta konpromisoaz. Orain semea dago gaztetxearen antolakuntza taldean eta horrek, jakina, izugarri pozten nau.

Guk bezala, Iriondok bezala, mundu garbiago bat dute amets, eta elkartasunatik eta inkonformismotik dihardute lanean.

Gaztetxeak 36 urte! Ez dadila haria eten!





AMAIA EGIDAZU

Oromiño erreka, Ibaizabal

Biak besarkatzen diren lekuan, Guardiatsu, amaren baserria.

Oroitzapen andana. Aittitten butroiak eta karramarroak. Ezkailuak, olio berotan, arrautzekin igerian. Mahai ingurua jendez beteta. Kantuak, bertsoak eta esaera zaharrak. Bazkalosteko antzerkiak eta ikuskizunak. Txapako beroa. Aittite mahai gainean lo. Hiru katakumeen koadroa. Txokolatezko gailetak goiko armairuan. Makurtuta lapurtutako mailukiak. Etxaurreko pikondoa. Kortako txiza putzua. Lehengusuarekin partekatutako jolasak, okerkeriak. Ondorengo osabaren koskorrekoak. Etxosteko frontoia. Platano arbola erraldoiak. Ur azaleko zapatariak. Ibaizabalen gorakadak. Home altzari denda (guretzako ome) eta osteko txintxaunak. Burdin ura darion iturria. Papelera usaina (ze usain?).


Aittitten domekatakola kolonia usaina (hura bai sarkorra). Ohe altu-altua. Manta pisutsuak.

Poltsa beroa. N-634aren kotxeen gaueko zarata. Amamaren lotarako kantuak eta errezuak.

Eta beste egunsenti bat.

Oroitzapenez eginak omen gaude.

Guardiatxukoak, zalantzarik barik, nire zimenduen oinarri dira.




ARITZA RODRIGUEZ

San Lorentzo basiliza, Zaldibar

Jota, goazen !!!

Horrela esaten nion Gatika baserrian bizi nintzeneko garaian nuen txakurrari. Korrika ateratzen zen aldapan gora, San Lorentzoko basiliza hontara iristen ginen arte.

Arnasgunea da leku hau, ezer ez egiteko lekua, egotea baino.



ATXONDOKO UDALA



www.atxondo.eus

Berriz

**NATURA
ETA KULTURA
ONDAREA
BERRESKURATZEN**





▲
ESPACIO INTERIOR
DEL TALLER
DE LA FERRERÍA
DE LEBARIO.
1925.

Autor desconocido. F/003495.
© Euskal Museoa. Bilbao.



LA DESTRUCCIÓN DE LA FERRERÍA DE LEBARIO

 Eva Díez Paton |  Euskal Museoa. Bilbao

LECCIONES DEL PASADO

El reconocimiento del patrimonio industrial ha sido difícil y tardío. En gran parte debido a una falta de definición clara, la diversidad de sus elementos, su cercanía temporal y una escasa sensibilidad social.

La Ley 16/1985 del Patrimonio Histórico Español no abordaba el patrimonio industrial, y las leyes autonómicas de los años 90 ofrecían una protección limitada.

En el País Vasco, a pesar de ser un territorio altamente industrializado, la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco no lo mencionaba. La redacción del Plan Nacional de Patrimonio Industrial en 2001, actualizado en 2016, tuvo un impacto significativo en la consideración del patrimonio industrial como bien cultural, así como en las leyes autonómicas de patrimonio histórico o cultural que le siguieron. La Ley 6/2019 de Patrimonio Cultural Vasco subsanó aquel vacío legislativo, regulando de manera específica el patrimonio industrial y entendiéndolo como parte de la identidad vasca. El intento de conservación de una ferrería vizcaína en 1928 puede parecer un



📷 Detalle de una de las fachadas de la Ferrería de Lebario en Abadiño. 1925. Autor desconocido. F/003481. © Euskal Museoa. Bilbao.



hecho distante, pero, en realidad, ejemplifica las dificultades inherentes a la definición y protección de este tipo de patrimonio, y ofrece una excelente oportunidad para reflexionar sobre la importancia de su conservación.



La ferrería de Lebario, ubicada en la anteiglesia de Abadiño y cuya construcción debió iniciarse a finales del siglo XVI, respondía al modelo de ferrería imperante en el Duranguesado en la Edad Moderna. Se trataba de un edificio rectangular con techo a dos aguas y gruesos muros de mampostería, con recercos de sillería en vanos y esquinales. Constaba de un portalón lateral que conducía a un espacio interior con el característico suelo en desnivel. La fachada hacia el cauce poseía un piso superior de ta-

📷 Detalle de la turbina de la Ferrería de Lebario en Abadiño. 1925. Autor desconocido. F/003491. © Euskal Museoa. Bilbao.

blazones de madera, mientras que la opuesta presentaba un arco de entrada rebajado cegado. En su interior, un amplio espacio incluía un almacén para el hierro, carboneras y dos dormitorios para los operarios. A diferencia de otras ferrerías de la época, Lebario carecía de jauntzoile, fragua y taller de herreros.

Gruesos muros, a modo de cortafuegos, dividían la zona de almacenaje de la del taller, comunicadas por dos puertas. El taller de maquinaria era un espacio de planta rectangular, donde se encontraban el martinete, los barquines (hauspoak) y el horno de fundición. El funcionamiento de una ferrería requería de un sistema de recogida y cana-

lización del agua, con una presa que la retenía y la conducía por un cauce hasta ser embalsada en una antepara, desde donde se dejaba caer. En Lebario, dos canales de fábrica conducían el agua desde la antepara hacia dos ruedas hidráulicas situadas en paralelo a la fachada. Cuando el agua golpeaba las palas de las ruedas, se activaban los mecanismos, los barquines y el martinete, a través de un eje. Los operarios podían regular el flujo de agua hacia las ruedas utilizando pértigas. El horno de fundición se separaba de los barquines por medio del muro bergamazo, que actuaba como cortafuegos. Un gran arco rebajado, construido en paralelo al muro bergamazo, reforzaba, a modo de tirante, la pared de la zona de almacenaje y la fachada del canal.





📷 Plano general con un grupo de hombres, con Jesús Larrea al fondo, delante de una de las fachadas de la Ferrería de Lebario en Abadiño. 1925. Autor desconocido. F/003486. © Euskal Museoa. Bilbao



**LA MAYORÍA
DE LOS ESCRITOS
A FAVOR DE LA
CONSERVACIÓN DE
LEBARIO RESALTABAN
SU SIGNIFICADO
COMO SÍMBOLO
DE LA HISTORIA
Y LA IDENTIDAD
VASCA.**

En 1918, La Ferretera Vizcaína decidió abandonar la ferrería de Murueta, que venía explotando desde años atrás, vender como chatarra su maquinaria y adquirir la ferrería de Lebario. Esta instalación se mantuvo en activo para la fabricación de sartenes hasta 1923, fecha en que la sociedad renunció a sus derechos de concesión de aguas para usos industria-

les. En esos mismos años, la Junta de Cultura Vasca, organismo creado por la Diputación de Vizcaya para el fomento cultural y la protección del patrimonio arquitectónico, debatió la conservación de la ferrería de Abadiño como “homenaje a la antigua industria vizcaína”. Al mismo tiempo, Jesús Larrea, director-conservador del Museo Etnográfico Vasco, fue el responsable de los trabajos para la reproducción de una ferrería y sus mecanismos, basándose en el modelo de Lebario. Esta réplica a escala, inaugurada en 1922, tuvo entre sus objetivos guardar la memoria de la que consideraron la última ferrería activa en Bizkaia.

Aprovechando el repentino interés por la construcción, la gerencia de La Ferretera Vizcaína ofreció vender Lebario, incluyendo la construcción, terrenos y derechos de agua, por 50.000 pesetas a la Junta de Patronato del Museo Etnográfico. La Junta de Cultura Vasca, responsable última de la conservación del patrimonio en la provincia, nombró una comisión para gestionar la compra, quienes sugirieron un potencial uso turístico e involucrar a empresas siderúrgicas en su preservación. Ante la negativa de la empresa a desprenderse del salto de agua, la comisión propuso que se comprometiera a mantener llena la antepara para exhibir el funcionamiento de la maquinaria a futuros visitantes. Sin embargo, la falta de acuerdo económico entre la Junta de Cultura Vasca, que ofreció 30.000 pesetas por la ferrería sin el salto de agua, y los accionistas de La Ferretera Vizcaína, conllevó su enajenación en subasta pública en 1928.

La conservación de Lebario dependía principalmente de su adquisición por parte de una institución, ya que la legislación vigente no consideraba la arquitectura preindustrial como parte del tesoro artístico. Después de que la subasta de la ferrería quedase desierta y ante la falta de acción de la Junta de Cultura Vasca, el interés por su salvaguarda pasó a los ingenieros industriales, especialmente al director del Centro Industrial de Vizcaya, Luis Barreiro. Barreiro es reconocido como el responsable del primer estudio de

arqueología industrial en el País Vasco, gracias a su trabajo de campo entre 1907 y 1919, donde registró detalladamente ferrerías de Navarra y el País Vasco. En el caso de la instalación de Abadiño, Barreiro realizó dibujos detallados de la planta y la sección del taller de maquinaria, así como de la fachada que daba al canal. Además, a través del Boletín Minero, solicitó apoyo económico a la Diputación de Vizcaya, a las grandes fábricas del Señorío y a la Central Siderúrgica Española para conservar Lebario como futuro centro turístico.

La respuesta fue positiva, con varios periódicos, como La Tarde, El Pueblo Vasco o Euzkadi, expresando su apoyo a la protección de la ferrería, mientras



 **Espacio interior del taller de la Ferrería de Lebario. 1925.**
Desconocido. F/003495. © Euskal Museoa. Bilbao.




que desde DYNA, revista de la Asociación Nacional de Ingenieros Industriales, se adhirieron a la iniciativa. Así, Andrés Bengoa propuso a la Asociación de Ingenieros Industriales de Bilbao abrir una suscripción para adquirir la ferrería y ofrecérsela a la Diputación. La iniciativa contó con el respaldo de Eusko Ikaskuntza y la colaboración económica de Ramón de la Sota, mientras que el presidente de la Diputación, Esteban Bilbao, se reunió con representantes de la industria siderúrgica para buscar su apoyo financiero para la compra de la instalación. Sin embargo, la falta de acuerdo económico entre la Diputación de Vizcaya y el propietario de los terrenos colindantes, quien vio una oportunidad de negocio en la venta, llevó al inicio de su desmantelamiento en agosto de 1928. La ferrería fue convertida en una central hidroeléctrica gestionada por Electra Esterripa, suministrando electricidad a la zona hasta 1949.

La mayoría de los escritos a favor de la conservación de Lebario resaltaban su significado como símbolo de la historia y la identidad vasca, presentándola como un homenaje a la laboriosidad del pueblo vasco. Se interpretó su conservación como una forma de conmemorar la raza vasca y su religiosidad, considerándola un documento étnico cuya pérdida había que evitar. Luis Barreiro y Andrés Bengoa, por su parte, subrayaron su valor artístico e histórico, elevándola Bengoa a la categoría de monumento. Asimismo, la protección de Lebario se entendió también como una forma de preservar la técnica preindustrial.

A pesar de la destrucción, su memoria nunca se perdió. En el V Congreso de Estudios Vascos, celebrado en Bergara en 1930 y dedicado al arte popular, se re-

creó la vida vasca por medio de diversas instalaciones, entre las que se incluyó una maqueta de Lebario realizada por Jesús Larrea. Esta maqueta, asociada al Euskal Museoa-Museo Vasco de Bilbao, ha contribuido durante décadas a difundir la importancia de la siderurgia tradicional en la historia y economía de Bizkaia, y del procedimiento del trabajo del hierro. En 1997, además, el entorno de Lebario fue designado como zona de presunción arqueológica. El intento de conservación de la instalación ferrona de Abadiño contribuyó, sin lugar a dudas, a la revalorización de otras ferrerías, especialmente la de El Pobal en Muskiz. La desaparición de Lebario sirvió como recordatorio de la fragilidad de la protección de la instalación de El Pobal, que finalmente fue declarada monumento histórico-artístico de carácter nacional en 1984.





 **Vista parcial de una de las fachadas de Ferrería de Lebario en Abadiño. 1925**
Autor desconocido. F/003475. © Euskal Museoa. Bilbao.



En el proceso de resignificación de la instalación preindustrial de Abadiño, Bizkaia redescubrió su historia. La imagen de la ferrería surgió como contraposición al dominio industrial de su tiempo, actuando como un espejo reflectante. Más que sus aspectos materiales, su valor inmaterial atrajo la atención de instituciones y representantes de la industria. Se reinterpretó como un símbolo de la vida tradicional y de la identidad vasca, priorizándose estos valores sobre los históricos, artísticos o técnicos. Su naturaleza ambigua, entre lo industrial, lo tradicional y lo etnográfico, junto con la diversidad de elementos que la conformaban, dificultó su protección. A diferencia

de otros bienes culturales, su conservación implicaba no solo el edificio, sino también la maquinaria y la energía necesaria para su funcionamiento. Lebario ejemplificó la precariedad y vulnerabilidad que afecta al patrimonio preindustrial, una problemática que aún hoy condiciona la conservación del patrimonio industrial.

**LEBARIO MARCÓ
EL INICIO DEL
RECONOCIMIENTO
DEL VALOR PATRIMONIAL
DE LO INDUSTRIAL,
PERO TAMBIÉN
EVIDENCIÓ LA
VULNERABILIDAD
Y ESPECIFICIDAD DE
ESTE PATRIMONIO**

El interés generado por Lebario dejó un legado significativo para Bizkaia. Jesús Larrea contribuyó a mantener vivo su recuerdo en el Euskal Museoa, donde generaciones han aprendido sobre el funcionamiento de las ferrerías y la importancia de la actividad ferrona en el País Vasco. El compromiso de Luis Barreiro con el estudio, difusión y conservación

de las ferrerías vascas sentó las bases para valorar estas instalaciones, culminando en la declaración de la ferrería de El Pobal como monumento histórico-artístico. Lebario marcó el inicio del reconocimiento del valor patrimonial de lo industrial, pero también evidenció la vulnerabilidad y especificidad de este patrimonio, que necesita ser constantemente protegido, defendido y recordado.



ABADIÑO ezagutu



Abadiño

Elizateko Udala

www.abadiño.org



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

re · THINKING METALLURGY

+40 urte metalurgian ezagutza aurreratua garatzen eta zabaltzen



AZTERLAN Metalurgia Ikerketa Zentroa

Alendalde auzunea 6, 48200 Durango · www.azterlan.es · 94 621 54 70

J.L. Lizundia

“Jendea pixka bat erlaxatuta dago
euskararekin, eta ezin dugu lorik hartu”

Markel Onaindia — Jon Irazabal | Txelu Angoitia





A stolako bere etxean, afariaren bueltan eginiko batzarrean, eskualde mailako kultur elkarte baten jarduna irudikatzen hasi ziren Durangaldeko zenbait lagun. 1965a zen, Frankismoa oraindik bizirik, eta jaien testuingurua aprobetxatu zuten poliziak susmorik har ez zezan. Horrela jaio zen Gerediaga elkarte. Sasoi hartatik euskaltzain emeritu izan arte, euskara izan da Jose Luis Lizundia Askondoren (Iruñea, 1938) bizitzako adar nagusietako bat. Eta, oraindik arduraz begiratzen dio gure hizkuntzaren egoerari. Bestelako arramak ere baditu abadiñarraren jardunak; aipagarria da eskualdetasunaren inguruan eginiko ekarpena, eta bereziki mankomunitatea sortzeko berak eta bere belaunaldiak urte luzez eginiko esfortzua. Horrez gainera, mugimendu politikoetan parte hartu izan du beti, eta legebiltzarkide izatera heldu zen. Mahaiaren bueltan batu gara gaurkoan ere, kafea pizgarri delarik, memoria errebobinatu eta aspaldiko kontuez berbetako.

1938an jaio zinen Iruñean, baina lasterrera ekarri zintuzten Abadiñora, zure amaren herrira.

Nire ama zerbitzari zen Iruñean, ostatu batean, katedralaren ondoan. Horregatik jaio nintzen Iruñean, kasualitatez, eta ni pozik, zeren Patxi Zabaletak esaten duenez, “hau ez da bizkaitarra, nafarra da” (barrez). 1938ko apirila zen, gerra denboran. Sei hilabete baino lehenago Abadiñora etorri nintzen, Trañako Etxenagusira, eta abadiñar kontsideratu izan naiz beti.



Euskadi ala Euskal Herria? Euskal Herria. EAJren errakuntza handi bat izan zen Euskadi. Gero beste alderdi batzuek segitu genuen izen hori erabiltzen



Lehen klaseak Matienako auzo eskolan jaso zenituen. Zelan gogoratzen duzu sasoi hura? Zigorrik jaso zenuen euskaraz berba egitearren?

Abadiñoako maisua, Don Alejandro Camara, erdal-duna eta erdaltzale hutsa zen. Gurea oster, Matienan zegoena, nafar karlista baina euskalduna zen, eta guri euskaraz egiten zigun. Don Juan Bautista Azpiroz. Julene Azpeitiaren lekura etorri zen. Izan ere, Azpeitia erbesteratu egin zen; gerora Burgosko (Espainia) herritxo batean egon zen, eta Urberuaga ondoan jubilatzen zen.

Azpirozek ez zigun zigorrik ipini euskaraz berba egitearren. Leongo (Espainia) irakasle bat eduki genuen gero, eta esaten zidan: "Lizundia, eres muy espabilado, pero no hables ese dialecto". Haren-tzako, euskara ez zen ezta hizkuntza bat ere.

Gerediagako foru zelaia. Han bueltan-bueltan dauden harriek sinbolizatzen dutena. Batasuna



Maristetatik pasa eta Komertzioa ikasi ostean, udal administrazioan ibili zinen. Garai, Izurtza eta Mañariko udal idazkari. Gero Euskaltzaindiara salto egin zenuen.

Gerraostean, 1941ean hasi zen Euskaltzaindia funtzionatzen; aktak itzuli egin behar izaten ziren eta Gobernu Zibilera bota. Ni pixka bat kasualitatez sartu nintzen, Juan San Martinek esanda. Asko ezagutzen nuen, bere ama Abadiñokoa zelako, topin (lapiko) egileena. Horiek urtero bazkari bat egiten zuten Abarketeruenean. Gainera, zelan Arratera ere joaten nintzen [eibartarra zen San Martin], ba horretatik ezagutzen nuen Juanito. Bera idazkaria zen, eta ni idazkariorde modura egon nintzen.

1965ean Gerediaga elkarteak sortu zenuten pentsaera desberdinetako zenbait lagunek. Lehenik zeure etxean batzartu zineten, eta hurrengo batean Soloa jatetxean, estatutuak onartzeko. Zer interes zeneukaten?

Gerediaga San Bizente egunez sortu zen, urtarrilaren 22an. Badu esplikazio bat: Astola auzoko jaia da, eta Guardia Zibilak etorrita ere... Geure etxean egin genuen afaria. Pentsatu baino bi gehiago agertu ziren batzarrerara, eta txuleta bi gehiago eskatu behar izan genizkion Ricardo Tabernazarrekoari, harakina zenari. Elkartea sortuta, lau urietan [Durango, Elorrio, Ermua eta Otxandio] erakusketa ibiltari bat egin genuen, eta ostean Durangoko Azoka jaio zen. Leopoldoren (Zugaza) ideia izan zen hori. Berak akorduan zeukan gerra aurretik liburu azoka bat egon zela Gasteizen, eta hortik sortu zen azoka.



**Elkartea, zergatik merinaldekoa?
Bazegoen eskualde kontzientzia bat,
aurretik zetorrena?**

Bai, hori da. Historiara joanez gero, Enkarterriek eta Durangaldeak junta propioa zeukaten. Gainera, Gerediagan, batzuk ez ginen durangarrak. Ni abadiñarra naiz, Alzibar baita ere, Julian Berriozabalgoitia garaitarra, Kapanaga iurretarra; geroago

Gorroño berriztarra, Lasuen zaldibartarra... Nahiko atipikoa zen, ezin zen Durangoko elkarte soil bat sortu.

Jose Antonio Arana Martijak (euskaltzaina) ere Busturiako merindadeko elkartea sortzea gura izan zuen, baina frakasatu egin zuen, ez zuelako behar zen atxikimendurik eduki, ez zegoelako hainbesteko eskualde kontzientziarik.



Astola auzoa eta auzitegia. Merindadeko merinoak etxe bat behar zuen, eta han egin ziren bere bulegoa eta kartzela



Eta elkartea jaiota, lehenengo Durangoko Azoka etorri zen. Tartean, zeuri zor dizugu diskoen atala ere egoteko ideia. Zugazak zioen donutsarena Lizundiaren eta Iñaki Beobideren gauza izan zela.

Guk, Gerediagatik, antzerkiari buruzko kongresu bat egin genuen Zaldibarren, Víctor Garitaonandia antzerkigilea zaldibartarra zelako. Beobide antzerki munduan ere sartuta zegoen, eta bere bitartez Salvat antzerkilari katalan famatua ekarri genuen. Horrela harremana sortu genuen Beobidegaz. Gero baita Xabier eta Joseba Gereño anaiekin ere, hauek Cinsa diskoetxea zeukatelako.

Julian Berriozabalgoitiagaz motorrean hara eta hona ibili zinen, argitaletxez argitaletxe, instituzioz instituzio, hauen partaidetza lortu guran, ezta?

Bai. Guk lau diputazioen babes nahi genuen, Nafarroakoarena barne. Institución Príncipe de Vianako buruak galdetu zigun: “¿Eso qué tiene que ver con Navarra?”. Erantzun genion Durangaldea Nafarroako erresumaren parte izan zela eta bla, bla, bla...

Durangaldea ala Durangerria? Uste dut Durangerria, berriagoa izan arren, hobe dela.

Gero, Bueno Monreal kardinalari esker, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Baionako gotzainen baimena edo baietza lortu zen. Gasteizkoarena ez, Peralta Ballabrigarena, ez zelako batere euskaltzalea, ezpada ze guztiz kontrakoa.

Arazorik eduki al zenuten?

Baimena lortu genuen. Lehenengo, badaezpada, alkatearena, Valentín Egidazurena. Gero Gobernu Zibilera joan ginen, eta galdetu ziguten: “¿A qué venis?”. Conchita Astola zenez gure presidentea, erregimenetik gertukoa, “bueno, bueno, ya veremos” esan ziguten haiek.



Gerediagaren barruan atalak zabaldu zenituzten: euskara, kultura, artea, nekazaritza, folklorea, hirigintza, eta antzerkia eta zinearena. Zuk euskarakoan hartu zenuen parte, ezta?

Gerediagako sailei izen bat jartzea pentsatu genuen, eta euskarazkoari Kirikiño ipini genion, zelan mañariarra zan bera. Mañarian Kirikiñoaren omenaldia antolatu genuen, eta polizia armatua etorri zen.

Kalez jantzita zegoen euren burua, eta galdetu zuen: “¿Es este el homenaje del batallón Kirikiño?”. Ni Gerediagako idazkari eta Mañariko eta Izurtzako udaletan ere banintzen idazkari, beraz, ardura bikoitza neukan. Gaur egunerako, igual ez dira asko izango orduan eginiko lanak, baina ordurako asko zirela uste dut. Kirikiño sailaren babesa izan zuten ikas- tolek eta alfabetatzeko gau eskolek ere bai. Geroa- go sortu zen alfabetatzerako eta euskalduntzerako koordinakundea, AEK.

Euskara. Indoeuropar-aurreko lekuko bakarra

Euskararekin jarraituz, 1968an euskara batua ezartzeko batzarretan parte hartu zenuela nabarmentzekoa da. Gerediagak prozesu horretan ere babes aterkia ipini zuen. Zergatik?

Ermuan egin ziren lehen jardunaldiak. Hasiera bat-
tean Gipuzkoan egin behar ziren, baina Juan San
Martin etorri zen nigana, herrialdea Salbuespen
Egoeran zegoelako. Euskara batuaren lehen jar-
dunaldiak Gerediagaren babesean egin ziren, non
eta Ermuan! Eibarren ezin ziren egin, baina Er-
muan bai! (barrez). Geroago Arantzazun egin zen
hurrengo batzarra, alkateak gobernadore zibilare-
kin harremana zeukanez baimena lortu zuelako.
Baina, baldintza bakarra ezarri zuen, publizitate
larregirik ez egitea. Ostean, Arantzazun adosturi-
koa Oñatin onartzeko asmoa geneukan, eta ez zen
onartu, herriko gazteek jaietan boikota deitu zuten
eta. Horrela, Durangoko Azoka aprobeztatzuz, As-
tolan onartu ziren Arantzazuko gomendioak. Hori
ere esan egin behar da: Euskara batuaren dekla-
razioa Durangaldean egin zen, Astolan. Badu bere
inportantzia! Hantxe egon ginen Pierre Lafitte, Ga-
briel Aresti, Jean Louis Davant...

Eta orain zelan ikusten duzu euskararen egoera? Salbu al dago?

Nik uste dut jendea pixka bat erlaxatuta dagoela, eta ezin dugu lorik hartu. Hizkuntza txiki bat da, eta ondoan edo gainean beste hizkuntza indartsu bi ditugu, frantsesa eta gaztelania. Hizkuntza bat ezin da salbatu administrazioaren babesik eta eskolarik ez badauka; horiek dira oinarrizkoak. Akabo! administrazioa Gasteizen zelan daukagun, ba lo gaude.



Gerediaga elkarte.
Euskal Herrian,
eskualde
mailako elkarte
bakarrenetakoa

Administrazioa babes bat da, baina berak ezin du dena egin. Eta administrazioaren eskuetan uztea ere, arriskutsua izan daiteke.

Gerediagaren eta Durangoko Azokaren
sortzaile izanda, zelan ikusten duzu
eginiko ibilbidea?

Nik uste dut ibilbide oparoa eduki duela Gerediagak, bai sorreratik bai jarraipenean. Hala ere, uste dut ez dagoela lehengo izpiritua. Elkartea gauza batzuetan erdi lo dago, eta beste batzuetan bizi. Zuk zelan ikusten duzu, Ion?

Nik, baikor ikusten dut, baina eskualde eraketari gehiago erreparatu beharko geniokeela uste dut. Galderekin jarraituz, zer izan da zure ibilbidean bizitako gertakari garrantzitsuenak?

Uste dut Frankismoak guztia birrindu gura izan zuela. Baina gauza bat ez zuen lortu; gure hizkuntza, katalana eta galiziera mantendu egin dira, debeku guztien gainetik. Eta hizkuntza mantendu izana ez da broma kontua.

Gustura geratu zara urteotan egindako lanagaz? Merezi izan du?

Bai, baina egin ezin izan ditudanak ere gogoan ditut. Batez ere eskerrak eman beharra daukat, nire denboran eta baita gerora ere, lehen aipaturiko izpiritu hori gorde duten guztiei. Tartean zeuri, Jon.

Markel Onaindia Txabarri. *Kazetaria*
Jon Irazabal Agirre. *Gerediagako kidea*




 Jon Irazabal eta José Luis Lizundia elkarrizketako une batean.

🗨️ Gaizka Zabarte | 📷 ArtxiBook

KINTAKOLUMNISTEN

Jeronimo Martinez eta Rafael Iboleon militar espainiarrak Hotel Zaldibarren zeuden senide batzuekin oporretan gerra hasi zenean. Urriaren hasieran atxilotu eta Larrinagan espetxeratu zituzten. Iboleonen bi semeek, biak falangistak, berehala egin zuten ihes nazionalen aldera, Okildoko koban ezkutatuta egon ostean. Gauza bera egin zuen egun haietan Gumersindo Zabalak, 1918tik udal idazkari zen Leandro Zabalaren semeak. 1936ko uztaila eta iraila artean eskumatar batzuek erabili zuten leize hura, inguruetan milizianoak sumatzen zituztenean, ezkutatzeko. Ondoren, urri hasieran frontea Intxorta-Arrate-Kalamuan egonkortu ostean, nazionalen aldera pasatzeko gordeleku bilakatu zen.

SA



ARELA

ZALDIBARREN ETA INGURUETAN

Okildoko kobaren inguruko gerra sasoiko gertaerak



 Zaldibar, 1918. Pedro Mari Zabala alkatea (erdian). Ilargi Zaldibarko argazkilari taldea

Irailaren 13an jausi zen Donostia nazionalen esku, 21ean Elgoibar eta biharamunean Bergara. Pentsatzekoa da zelako ezinegona izango zen egun haietan nazionalen mendebalderanzko bidean hurrean zeuden herrietan.

Horren erakusle irailaren 23an Zaldibarko errepublikazaleen artean gertatutako listakarra. Dozenatik gora lagun zeuden egoitzan bilduta, kideren batzuek proposatu zutenean dokumentazioa eta bandera erretzea, faxistek herria berehala hartuko zutelakoan. Azkenean, Saturnino Gorostizak berriro jarri zuen bandera bere lekuan. Parrokoak epaitegian deklaraturakoari jaramon eginenez gero, Lenin deitzen zioten herrian. Hiru zinegotzi errepublikazaleetako bat zen, Frente Popularrekoa. Haiei eta Agirrebeitia baserriko euren burkide Esteban Garitaonandiari zor zaie eskumatarren sarea agerian jartzea. Euzkadiko Herri Auzitegiko 37/8 sumarioaren dokumentazioa ikusita, ondoriozt daiteke jende ugari zuela, gehiago edo gutxiago,

sare horren berri. Berrogeita hamaika lagunek deklaratu zuten sumarioan, horietako berrogeita sei zaldibartarrak.

1937ko urtarrilaren zazpian, gaueko bederatzietan, Zaldibarko parroko Benito Zabalak gizon baten bisita jaso zuen Hotel Zaldibarren, han bizi baitzen jabeekin: Leandro Zabala eta bere emazte, eta parrokoaren loba, Eustakia Zabala Orozketarekin. Eustakia Pedro Mari Zabalaren arreba zen, Garitaonandia dorretxeak. Pedro Mari Zabala, aurretik bere aita bezala, 1910ean hasi zen zinegotzi eta, gerra sasoa salbu, 1942an hil arte jarraitu zuen udalbatzan, batean alkate bestean zinegotzi. Tasio Garitaonandiak, 1936ko iraila-urrian alkate eta gero Martiartu

Batailoian teniente ibilitakoak, epaitegian deklaratu zuen “Pedro Mari Zabala, bere osaba Benito Zabala parrokoarekin batera, Zaldibarko kazike karlista” zela. Katolikoak ziren, jakina, eta hori partekatzen zuten jeltzaleekin, erlijioa gatazka politikoen ardatz nagusietako bat zen sasoian.

1931ko udal hauteskundeetatik sortutako udalbatzako zortzi zinegotziak katoliko moduan aurkeztu ziren, jeltzaleak edo karlistak izan. Felix Urizar hautatu zuten alkate, eta zeregin horretan jardun zuen gerra hastearekin batera kargugabetu zuten arte, kolpisten aldeko susmagarritzat jota. Espainian errepublika aldarrikatu eta berehala, apirilaren 19an, aho batez onartu zuen udalbatzak euskal gobernu errepublikar bat osatzeko eskubidea, espainiar errepublikari binkulatua, eta baita autodeterminazio eskubidea ere. Karlisten eta jeltzaleen arteko elkarlana, baina, apurtuta zegoen 1934rako. Urte bat lehenagoko errenteroak babesteko legeak ere, ordura arte euskal nazionalismotik hurbil ziren baserri eta lur jabe mordoa espainiar eskumarekin

lerrokatzera bultzatu zituen, kolpistekin. Edozein modutan, jeltzale batzuentzat beldurgarriagoak ziren gorriak erreketek baino.



Benito Zabala. Zaldibarko parrokoa 1920tik 1944 arte.



Zaldibar 1930. hamarkadan. Ilargi Zaldibarko argazkilaria taldea

La guerra en todos los frentes

**do el avance de las fuerzas gu-
sobre la línea Aravaca-Las Rozas**

en el frente de

El Tribunal Popular actúa

Ha comenzado a verse la causa contra los procesados Zabala y Buruaga, incurso en el delito que supone el facilitar fugas al campo faccioso

Hoy seguirá el juicio en la sección segunda de la Audiencia.

Ayer por la mañana se constituyó el Tribunal Popular para ver la causa llevada contra los sujetos Emilio de Salas y Domingo Durango, acusados del delito que supone haberse dedicado a facilitar la fuga de algunas personas al territorio ocupado por las insurrecciones.

Actuó el fiscal Clemente, y dete-
nió a los presentados los abogados
Francisco Nolasco y José María Caba-
neta.

Al parecer, de ahí, se salieron y reorganizativa organizada, formaban parte los promotores sacerdotes para más de mil años de ellos. Rafael y Mariano, acusados de haber formado la base de la mafia, entre otros, Pedro María de Rafael y hijo de este. Rafael y Mariano, de promotoría Rafael, de los de Rafael, Hermano

Los propietarios del Hotel-José de Echeverría y el señor Dr. Rafael de Echeverría en un departamento de la casa de la calle de la Cruz, número 10, del Centro de Santiago.

ANTE EL TRIBUNAL POPULAR

**Por favorecer las evasiones
al campo faccioso**

Ayer mañana comenzó a verse ante el Tribunal popular, presidido, como de costumbre, por el señor Espinosa, una causa instruida por el Juzgado especial contra José Benito de Zabala, Silvestre Barnaga y Leandro de Zabala, por haber organizado y facilitado la evasión a terreno de los rebeldes de varias personas.

[illegible]

Los procesados José Benito...
bala y Silvestre Barua han incurrido en el delito previsto y penado en el artículo 222 del Código de Justicia militar, y Leandro de Zabala...
previsto y sancionado por el artículo 221 del mismo Código.

Actuaron de abogados defensores de los procesados los letrados D. Jerónimo Z. — D. José María Sánchez y D. Contil

સાચી જાણવાની કળા

Apastado de Correos 234 | Teléfono: 17.310 | Número 7.500

la guerra en todos los frentes

**do el avance de las fuerzas gu-
sobre la línea Aravaca-Las Rozas**

En el territorio vasco

La artillería vasca castigó ayer las posiciones facciosas de Bergara

[illegible]

El Tribunal Popular, en funciones

Vista de la causa por evasiones de Zald

Oihartzun handia izan zuen sasoiko prentsan eskumatarren sarearen kontuak

Telefonicako langilea zela esanez aurkeztu zuen bere burua bisitariak, eta abadeari konfiskatu berri zioten telefonoaz berba egin nahi zion. Hortik abiatuta, bestelako gaietara joan zen elkarriketa, bisitariak nahi zuen norabidean. Izan ere, Balbino Imaz, zalduondarra jaiotzez eta Eitzagako Bekoetxe baserriko bizilaguna, kontraespioitza lanetan zebilen, Elorrioko Sektoreko buru Tatxo Amilibiaren esanetara. Topatu zuen abagunea esateko berari ez zitzaiola axola politika, eta, gainera, anaia bi zituela preso. "Hiru ordu laurden eduki ninduen etxeko atarian hauek guztiak kontatzen", idatzi zuen Imazek txostenean. Handik egun bira, berriro egin zion bisita.

Parrokoak esan ei zion alkatearekin (Serapio Etxeandia) harreman oso ona zuela, hura ere gorrien beldur zela, eta gauzak horrela jarraituz gero, nazionalen aldera pasatuko zirela. Horretarako bi-deak aipatu omen zizkion: Urko inguruetatik eta Elgetako kanposantuaren ezkerrean dagoen bi-detik. Lortu zezakeela Zaldibarko alkatearen sal-bokonduktoa Markinara edo Barinagara joateko. Horrela joan zirela Zaldibarren ezkutatuta egondako batzuk. Koba ondo hornituta zegoela bertan bizitzeko, eta iheslariak beste aldera pasatutakoan, Donostiako irrati batek *La compañía requiescat in pace se encuentra bien* esaten zuela, zegokionari jakinaraziz ondo zeudela.



Elorrio, 1937. Agirre lehendakariaren ezkerrean Eustasio Amilibia Matxinbarrena, "Tatxo".

Bigarren bisitan esan zion Durangon bazela pertsona bat hogei duroren truke jendea beste aldera pasatzen zuena, eta momentuan jakin ez arren haren izena, esan ziezaiokeela hurrengoan, etxeko emakumeek bazekitela eta. Hori lortuko ez balu, bidera zezakeela Mallabiko parrokoarengana, honek beste norbaitengana bidal zezan, zeren Mallabian konfiantzazko jende ugari omen zegoen. Orduan Imazek esan zion koinatu bat zuela Mallabian ezkutatuta, beste aldera pasatzeko asmoarekin. Hori entzundakoan zalantza egin ei zuen parrokoak, eta erantzun zion agian une hartan ez zela inor egongo Okildon.

Urtarrilaren 10eko gauean, Telefonicako enplegua-tuaren koinatua omen zena agertu zitzaion etxean Benito Zabalari, nazionalen aldera pasatu nahi zuela berretsiz. Abadeak adierazi zion alkateak esan zio-la lehengoan joan zitzaiona ez zela Telefonicakoa, delegatuaren agentea baizik. Eta ez zekiela nori

sinistu, hain zirudien serioa gizonak! Gau horretan atxilotu zituzten Benito Zabala, Leandro Zabala eta Serapio Etxeandia, parrokoa, idazkaria eta alkatea, hurrenez hurren. Gauerdian galdekatu zuen Tatxo Amilibiak parrokoa, Elorrión, eta goizaldeko ordu bata eta erdietan alkatea.

Une bertsuan, Pedro Mari Zabalaren semeetako bat Felix Urizarren emaztearengana joan zen esatera ha-ren senarra eta haien aita onik pasatu zirela naziona-lengana, semeetako batek gidari lanak eginda. Horrela esan zion, eta sinatu, Urizarren emazte Victoria Ostortek Tatxo Amilibiari urtarrilaren 19an. Horieta-ko egunen batean atxilotu zuten Silvestre Buruaga. Mallabiko udalak, epaileak eskatuta, egindako txos-tenean irakur daiteke “parrokoa beti izan da alderdi tradizionalistako kide aktiboa”, “1931ko udal hautes-kundeetan, Mallabian hainbat baserriren jabe den Re-zusta jaunaren ordezkari moduan jardun zuen.” Aba-



deak hitzarmen bat aurkeztu zien Mallabiko alderdiei sinatzeko, jasotzen zuena bost zinegotzi izango zirela tradizionalistentzat, “baita hurrengo hauteskundee-tan ere”, eta hori bete ezean, dirutza ordaindu behar-ko zuketela. Jeltzaleek uko egin zioten sinatzeari, eta ezerezean geratu zen jauntxoan ahalegina.

Atxiloketa horien ostean Felix Urizar, Juan eta Pe-dro Mari Zabala anaiak, eta honen seme Eugenio eta Isaias arrapaladan pasatu ziren kobatik beste aldera. Julian Zabala, Pedro Mariren semea hori ere, Martiartu Batailoiko teniente zen. 1937ko urtarrila-ren 17an, Ubidean zegoela, etsaiaren aldera pasatu zen, fusila aldean zeramala. Bere konpainiako kapi-tainari utzi zion gutunean, besteak beste, zioen “ga-tazka galanta bizi dut neure baitan, nazionalista naiz eta ez diot utziko izateari”, “aita eta anaiak etsaiaren lerroetara igarota, ezin dut postu honetan jarraitu”, “uste dudanez gurasoekiko maitasuna guztiaren gainetik dagoela, amore ematea besterik ez dau-

kat”. Sumarioan, bestalde, hainbatek aipatzen dute Durangoko Barrueta anaiak ere, Okildoko kobazulo-tik joan zirela nazionalen aldera.

Parrokoak, Imazi esandakoa berresteaz gain, onartu zion Amilibiari haren loba Pedro Mari eta Juan Zaba-la, eta Felix Urizar, alkate ohia, Elgetatik pasatu zirela beste aldera. Azken boladan entzun zuela Elorrion monarkikoak eta nazionalistak bat eginda zebiltza-la faxistei sartzen uzteko, eta gorrien aurka ekiteko. Delegatuari dagokionez, Zaldibarren hobeto har-tuko zuketela nazionalista bat, ezkertiarrek jende gehiago atxilotuko zutelakoan.

Serapio Etxeandia alkate jeltzaleak, galdetuta ea ihes egindako baten-baten berririk zuen, erantzun zuen udal idazkariaren seme Gumersindo desager-tu omen zela, burutik eginda edo, baina ez zekie-la nazionalen aldera pasatu zen ala ez. Atxilotzera joan zitzaizkionean, ea zer dela eta ahalegindu zen



 Okildoko kobaren gaur egungo irudia. Jesus Mari Arruabarrena



 Bisita gidatua Okildo koban, 2024an.

ihes egiten, galdetu zion Amilibiak. Bezperan, Zaldibarko Plaza Delegatu Jose Zabalaren gutuna jaso zuela, agintzen ziona bere eskumen garrantzitsuenak haren esku uzteko, tartean salbokondukoak egitea eta errekrutatze tramiteak. Gutunarekin Defentsa Idazkari Rezolarengana eta Bizkai Buru Batzarreko lehendakariarengana jo zuen. Biek esan ziotela jaramonik ez egiteko delegatuaren agindu horri. Eta ihes egiten saiatu zela, beldurtu egin zelako jende armatua ikustean. Bi egunera aske utzi zuten alkatea, eta biharamunean Lazkano jeltzalea jarri zuten Zabalaren ordezkari Plaza Delegatu. Baina ordurako agerian zegoen kolpisten aldekoek, jeltzale batzuen ezinbesteko kolaborazioarekin, antolatutako sarea. Nahikoak izan ziren Jose Zabala eibartarrak Plaza Delegatu moduan egin zituen hamar egunak.

Larrañaga batailoiko milizianoek, Okildoko koban sartu zirenean urtarilaren 15ean, ihes egin zutenek egindako azkenengo afariaren hondarrak aurkitu zituzten, beste gauza askoren artean. Zortzi pertsona auzipetu zituzten, matxinadagatik eta traizioagatik: Leandro Zabala, Benito Zabala, Silvestre Buruaga, Pedro Mari Zabala eta beraren seme Eugenio, Isaías eta Julian, eta Gumersindo Zabala. Lehenengo hirurak Larrinagan egon ziren preso, Bilbo jausi arte. Besteak, errebeldeak epaituak, Zaldibarrera itzuli ziren herria Molaren tropek hartu ostean. Maiatzan Felix Urizar izan zen nazionalak izendatutako lehenengo alkatea, Pedro Mari Zabala, Patricio Astarloa eta beste jauntxo batzuk zinegotzi zirela. 37/8 Auzia 1937ko ekainean eten zen, Bilbo jausi zenean. Okildoko koba erabili zuen sareko jendeak gorpuztu zuen frankismoa Zaldibarren hurrengo lau hamarkadetan.

Elorrio-F.C.

100

Pasioz beteriko mende bat



 Imanol Tabera Gonzalez

C.D Elorrio, herri xume baten harrotasuna



 Eleizalde futbol zelaiko tribunaren inaugurazioa, 1954an.

Duela mende batetik gaur egunera, C.D Elorrio futbol elkarte soil bat baino askoz gehiago izan da eskualdean. Bere komunitatearen nortasunean errotutako sinboloa izan da, inspirazio eta harrotasun iturri belaunaldi guztientzat.



Denborak aurrera egin ahala, Elorrioko klubak herriarekiko lotura hautsezina duen historia ehundu du lortutako garaipenei esker eta, batez ere, gaingitutako erronken bidez. Beraz urte ezin hobia da hau bere ehun urteko ibilbidearen hausnarketa egiteko eta, nola ez, herri honen kamiseta hori-beltza defendatu duten gizon-emakumeei omenaldi umila egiteko. Ehun urteko historia lerro gutxi batzuetan laburtzea ezinezko denez Elorrioko Futbol Taldearen urterik garrantzitsuenak baino ez ditugu azpimarratuko hemen.

 **LORRIO FOOT-BALL CLUB,
GAUR EGUNEKO
C.D ELORRIOREN JATORRIA**

Nahiz eta 1920. urtean lagun talde bat batu Iguria auzoko kanpetan futboleko jolasteko, Elorrio Kirol Elkartearen ibilbidea, formalki, ez zen 1923ra arte hasi, eta handik aurrera,

futbol ibilbide ziragarria burutu zuen. Lehen urratsak, inguruko herrietako taldeen aurkako norgehiagoketara mugatzen baziren ere, benetako jauzia 1924an gertatu zen, taldea ofizialki Elorrio Foot-Ball Club izenarekin federatu zenean. Hauxe izan zen herrian futbolarekiko pasioz eta dedikazioz beteriko istorioaren hasiera.

Elorrioko futbol taldearen sorrerak, hogeiko hamarkadan, oraindik ere zalantzak uzten ditu bere motibazio zehatzei buruz. Jakin badakigu garai hartan hainbat kirol aktiboki sustatu zirela herrian, hala nola euskal pilota edo txirrindularitza, baina futbolarekiko interesaren jatorri espezifikokoak misterioa izaten jarraitzen du. Egia da XX. mendearen hasieran talde ugari sortu zirela Bizkaian, bereziki industrialdeetan, hala nola Bilboko Acero Futbol Club 1914an, Barakaldo 1917an edo Gernika 1922an.

Gainera, Durangaldeko beste talde batzuk ere Elorrioko garai berean jaio ziren, hala nola Durangoko Kulturala 1919an edo S.A.D Amorebieta 1924an. Hala ere, gertaera horien eta Elorrioko taldearen prestakuntzaren arteko lotura zuzena eztabaidagai eta espekulazio gai izaten jarraitzen du.

Durango-Arazola-Elorrio trenaren inaugurazioak, 1905ean, zeharkako garapen industrialak ekarri zuen hiribilduan. Elorrioren enplegua izugarri hazi zen eta ondorioz langile kopurua ere bai. Beraz, pentsa genezake garapen industrialak, jende berriaren etorrerak (langile zein udatiarrak), inguruko herrien eraginak eta futbolaren ospearen gorakadak futbolarekiko grina itzela ekarri zutela Elorriora. Horrez gain, Athletic Clubek Errege Kopa txapelketa irabazteak bultzada handia eman zion, batez ere 1921ean eta 1923an.



 Elorrio Foot-Ball Club 1923 urtean.

Federatu ostean Elorrio Bizkaiko ligaren C Seriean sartu zen, cedi-lla izenarekin ezagutzen zen liga. Lehenengo denboraldi horretan hirugarren sailkatu zen, aurretik Durango F.C eta Gernika gelditu zirelarik. Elorriok liga honetan jarraitu zuen 1932ra arte. 1929ko denboraldia nabarmendu dezakegu bigarren postua lortu baitzuten Gernikarekin (lehen postuan) berdinduta. Baina berdinketa-hauste partidari Gernika atera zen garaile, eta ondorioz, Elorrioren maila igoerarako itxaropena zapuztu egin zen.



1931-32 denboraldian, nahiz eta liga hasita egon, partidu batzuetara ez zen aurkeztu, eta gerora Elorrio Foot-Ball Club-ek txapelketa utzi zuen. Ematen du egoera ekonomikoa zaila zela taldearentzat eta honek bultzatuko zuela liga uzten.



© 1953-54. denboraldiko CD Elorrio, San Mamesen jokatu zuen taldea.

LORRIOREN BIGARREN ALDIA: ELEIZALDE FUTBOL ZELAITIK SAN MAMESERA

Hamabost denboraldi jolastu gabe egon ostean Elorrio berriro ere federatu zen 1947-48 denboraldian. Gainera, bigarren aldi hau modu onenean hasteko gaur ezagutzen dugun Eleizalde Futbol Zelaia estreinatu zuten. Liga hasita zegoela federatu zirenez ezin izan zuten honetan parte hartu, baina Copa del Hierro txapelketan emaitza bikainak lortu zituzten ligaxkako bigarren postua lortu baitzuten. Nahiz eta final-hamaseirenetan Bera tal-

dea erraz garaitu (4-1) final zortzirenetan Sondikaren kontra galdu egin zuten (5-0).

1953. urtea berezia izan zen Elorrioko futbol zale-tuentzat, urte honetan C.D Elorrio (bigarren fase honetan hartu zuten izen hori) Bizkaiko futbolaren Katedralean jokatu baitzuen lehen aldiz. Bigarren Erregionaleko lehen sailkatua izanik, Campeonato Absoluto de Segunda Regional txapelketaren finala zuten San Mamesen Lutxanaren kontra. Nahiz eta neurketa berdinketarekin amaitu, Lutxanak eraman zuten azkenean neurketa, 4-1 irabazi baitzion luzapenean.

Oraingo futbol modernoaren mundu zorabiagarrian, non fitxaketak hainbat milioietako zifra estratosferikoe-tara iristen diren, liluragarria da garai batean transfere-tzien diru kopurua balioa askoz ere apalagoa zela gogoraraztea. Garai horretan, Elorrioko taldeak, bere plantilla indartzeko jokalarien bilaketa batean murgilduta, Alfonso Bilbao, Txanton maitekiro ezaguna, Durangoko Culturaletik Elorriora fitxatzeko erabakia hartu zuen, 4500 pezetako diru-kopurutxoaren truke (gaur eguneko 27 euro). Fitxaketa hori, bere garaian kapritxo hutsa eman bazuen ere, garrantzi handiko mugimendu bihurtu zen, eta etorkizuna markatu zuen.



HIRUGARREN MAILA, OHOREZKO LIGA ETA GAUR EGUNEKO GIZON TALDEA

Elorrioko herri xumearentzat, 1979-80 denboraldia mugarri historikoa izan zen Elorrioko Kirol Elkartearen ibilbidean. Irmotasun eta grinaz beteriko igoera batean, taldeak maila nazional desiratua lortu zuen: hirugarren maila. Herri xume baten erraietatik ateratako Elorrio Kirol Elkartek eszenatoki askoz zabalago batean lehiatzeko gai izan ahal zela erakutsi zuen, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako taldeen aurka ez ezik, Zaragoza, Huesca eta Toledoko taldeen aurka ere lehiatu baitzen. Hala ere, hirugarren mailako lehen denboraldia ez zen erraza izan. Taldeak azken-aurreko postuan bukatu zuen, baina salbazioa lortu zuen administrazio-berregokitze bati esker. Hala ere, hurrengo urtean behera egin zuen, taulako azken postuan geratu baitzen.



Urte batzuk geroago, Elorrioko Kirol Elkartea Preferentziako, Lehen eta Bigarren Erregional kategorietan ezarri zen, igoera baino jaitsiera gehiagorekin. Hala ere, 1991-92 denboraldira arte itxaron behar izan zuten Bigarren Mailatik Eskualdeko Lehen Mailara igotzeko. Lehen multzoko lehen sailkatuaren, Otxarkoagaren, aurka lehiatzeko aukera izan zuten txapeldun absolutuak izateko.





 Hirugarren mailara igo zen taldea (1979-80 denboraldia).



 Hirugarren mailarako igoeraren ospakizuna Elorrioko plazan.




📷 Gizonezko taldearen pregoia 2012ko Ferixa Nagusikoetan

Elorrion jokaturako partidari, etxekoek 3-2 irabazi zuten. Hala ere, Bilboko auzora itzultzean, epailearen erabaki polemiko batek kaosa eragin zuen. Otxarkoagak jokoz kanpo sartutako gol baten eta Elorrioko bi jokalariren kanporaketaren ondoren, elorriarrek, protesta gisa, baloia eskuekin hartzea erabaki zuten. Egoera sano kaskartu zen, eta epaileak jokari gehiago kanporatu zituen, azkenean partida bertan behera geratu zen arte. Nahasmena gorabehera, federazioak ez zuen partida errepikatzeko neurririk hartu eta titulu absolutua eman zion Otxarkoagari.

la bi hamarkadako aldi luze baten ondoren, 1992tik 2008ra, Elorrioko futbolaren historia denboraldien monotonian gelditzen ari zela zirudien. Lorpen handirik gabe, taldeak eskualdeko kategorietan borrokatzen zuen, halako arrakasta sonatu bat lortu ezinik. Hala ere, modu harrigarrian aldatu zen dena 2008-09 denboraldian.

2008-09 denboraldian, C.D. Elorrio bere historian aurrerik gabeko berpizte

baten protagonista izan zen. Gazte dedikatu eta konprometituen talde batekin, taldeak mugarri bat lortu zuen bere ibilbidean: ohorezko mailara igotzea. Bigarren erregionalean hainbat urtez borrokan aritu ondoren, Elorriok muga guztiak gainditu zituen, 2008-09 denboralditik 2011-12 denboraldira lau igoera jarraian lortu baitzituen. Lorpen hori nabarmena izan zen ez bakarrik gure inguruan, baizik eta estatu mailan ere markak hautsi zituelako. Elorrio Kirol Elkarteak futbol mailako erreferente bihurtu zen.





📷 2023-24 denboraldiko CD Elorrio, maila mantendu ostean.

C.D. Elorriok ohorezko mailari eutsi zion denboraldi luze batez, 2011-12 denboralditik 2022-23 denboraldira arte, eta talde errespetatua izan zen mailan. Hala ere, 2022-23 denboraldian, ustekabeko kolpea jaso zuten behera egin behar izan zu-

tenean, taulako azken postuan geratu ziren. Aurtengo denboraldian, 2023-24 denboraldia, taldeak azken aurreko partidaren lortu zuen maila mantentzea, Eleizalde Futbol Zelaian Zaldia A taldea 4-1 garaituz.





Kirolaren mundua gaur egunean, lorpen atletiko hutsa baino gehiago da, dibertsitatearen tratamenduan edo besteak beste genero-berdintasunaren aldeko borrokan. Zentzu horretan, Elorrioko emakumezkoen taldea erresistentziaren eta aurrerabidearen sinbolo indartsu gisa azaleratzen da.

LORRIKO EMAKUME TALDEA: PASIOA ETA IRAUNKORTASUNA

Joko-zelaian egindako balentrien bidez, emakume horiek sustraitutako estereotipoei aurre egiten diete, eta historikoki maskulinitasuna nagusi den espazio batean duten lekua aldarrikatzen dute. Bere historiari kirol-grina eta talentua islatzeaz gain, kirolean, genero-berdintasunaren aldeko borrokaren konplexutasunak argitzen ditu. Elorrioko futbolaren historia azaltzeko ezinbestekoa zaigu emakumeen taldeari buruz hitz egitea. Borrokan eta lanean eredu izan den, emakume kuadrilla bat izatetik Bizkaiko futbolaren erreferentzia izatera heldu da gaur egunean.

Nahiz eta lehen emakume taldearen zantzuak 1968koak izan (partidu baterako sortua, Oñatiren kontrakoa) Elorrioko emakumezko taldea 1991-92 denboraldian sortu zen. 1990tik aurrera hasi ziren entrenatzen José Cenitagoia Kotxero-ren agindupean, baina ez ziren 1991ra arte federatu. Elorrioko



 Emakumeen lehenetako talde federatua 90. hamarkadan.

emakumezkoen taldea futbolarekiko maitasunagatik elkartutako lagun talde bat bezala sortu zen. Lourdesko eskolako zelaian elkartzen ziren, partidak inprobisatuz eta kirol-grina partekatuz. Lehen egun horietan, ekipamendua oso txiroa zen: gizonetzkoen kamiseta erabiliak eta hondatuak. Lehen partidetan, federatuetan, garaipen handirik lortu ez bazuten ere, urte haiek gozamen eta adiskidetasunerako unea izan ziren, futbolarekiko pasioan sakontzeko balio izan ziren.

Hasiera batean, talde sendoak osatzeko jokalaririk nahikorik ez zegoenez, jubenilen taldea batzen zitzaien. Urteetako dedikazioari eta sakrifizioari esker, azkenik, Euskal Ligara igotzea lortu zuten. Maila horretako lehiakortasuna eta eskakizun-maila, jakina denez, oso handiak dira.



Emakume taldea 2011-12. denboraldian.

LORRIO EUSKAL KOPAN GARAILE

Elorrioko emakumezkoen taldea Euskal Ligan konstantzia eta erabakitasunaren benetako adibidea izan da, heldu zenetik mailaz jaitsi gabe sendo mantendu baita. Jokalariek, herri xume baten elastikoa harro defendatuz, Athletic Club, Deportivo Alaves edo SD Eibar bezalako zelai ospetsuetako erronkak gainditu dituzte, zirkinik egin gabe.

2022/23 denboraldian, Euskal Kopako txapeldun titulua lortu zuen Elorriok. Torneoaren edizio berezi honetan, non Euskal Ligako zortzi talde onenek parte hartu zuten, Elorriok bere kalitatea erakutsi zuen. Urte horretan ligan hirugarren postuan geratu zen eta bere historian lehen aldiz Euskal Kopako garaikurra altxatu zuen. Euskal Kopa irabazteko bide historikoan, Elorriok Basauriko Kimuak taldea

izan zuen aurkari final-laurdenetan. Eleizalden 3-0 nagusitu ziren arren, kanpoan partida zailagoa bihurtu zen, baina azkenean 3-2 Elorrioren alde amaitu zen.





 Josu Leon, Jon Barredo eta Arkaitz Lopezen agurra 2023-24 denboraldian.

Finalerdia eta finala Laudioko Ellakuri zelai neutralean jokatu ziren. Finalerdietan, Elorriok partida zaila jokatu zuen Deportivo Alaves Bren aurka eta 1-0 irabazi zuten baloi lapurreta eta kontraeraso azkar bati esker. Garaipen zirraragarri honen ondoren, Elorriok aurrera egin zuen eta finala, S.D Eibar C-ren aurka jokatu zuten. Hasieran aurea hartu arren, bere atean sartutako gol baten bidez markagailua berdindu egin zen. Luzapenaren ondoren, Elorriok penaltietan irabazi zuen partida, Izar atezainari esker, hiru penalti gelditu baitzituen. Horrela, Elorrioko jokalaria Euskal Kopako txapeldunak izan ziren

C.D. Elorrio-ren historia pasioak, dedikazioak eta arrakastak markatutako mende bateko bidaia da. Hasiera-hasieratik, klubak titulu ugari lortu ditu.

Horri esker maila nazionaletan lehiatu da, Elorrioko elastikoa estatu mailako hainbat zelaitan defendatuz. Gizonezkoen artean ez ezik, emakumezkoen taldeak ere gora egin du nabarmen. Mendeurrena Elorrioko komunitatearen izpiritu menderaezinarri egindako omenaldia da, eta herriaren babes funtsezkoa izan da klubaren garaipenak lortzeko orduan. 100 urte hauek ospatzean, C.D Elorrio inspirazio iturri izaten jarraitzen du datozen belaunaldientzat, ametsak erabakitasunez eta harrotasunez lor daitezkeela gogoraraziz.

Imanol Tabera Gonzalez
Historialaria



Garai

www.garai-udala.eus



Mañariko udala, alkarregaz



Mallabia



Mallabia
www.mallabia.eus





DURANGALDEKO ERRAKETISTAK
PÓRTICO DE SANTA MARÍA, EL CORAZÓN DE DURANGO
NÉSTOR BASTERRETxea. EUSKALDUN GLOBALA
LOS AMPUERO, UNA FAMILIA EMPRENDEDORA DE DURANGO
KARRIKA, 25 URTEZ DURANGOKO AMETSEN FAKTORIA IZATEN
LECCIONES DEL PASADO: LA DESTRUCCIÓN DE LA FERRERÍA DE LEBARIO
J.L. LIZUNDIA, ELKARRIZKETA
KINTAKOLUMNISTEN SAREA ZALDIBARREN ETA INGURUETAN
G.D ELORRIO, PASIOZ BETERIKO MENDE BAT